



“Goi mailan
utziko dut
atletismoa; gura
nuen moduan”

Iraia Garcia
Atleta • 26

Silvia Triguerosek Tor de Geants
330 kilometroko proba irabazi du,
iazko denbora 10 ordutan jaitsita

Abadiño | 88 ordu eskasean egin ditu Italiako lasterketako 24.000
metro positiboak. "Indartsu egon naiz", adierazi du. • 26. orrialdea



Emakume kurduen iraultzan barrena

Durangotik joandako delegazio feminista bat Mendebaldeko Kurdistanen egon da, Royavako Kobane hirian. Hango emakumeek bizi duten errealitatea eta sortu dituzten egiturak ezagutzeko aukera izan dute. Suargi elkarteak eta Durangoko Udalak adostutako hitzarmenaren barruan egin dute bidaia. 2-3. orrialdea

Leonor Etxebarria



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala
Laubideta kalea, 6 DURANGO • Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net
MATRIKULA-EPEA: Irailaren 4tik 14ra.
Matrikula egiteko ordutegia:
Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00



"Kobaneko emakumeak etxean egotetik, ikusezin izatetik, kalean egotera pasatu dira"

Abuztuaren 7tik 12ra bitartean Rojavako (Siriako Iparralde) emakumeen errealitatea ezagutzeko aukera izan zuen Durangotik joandako delegazio feminista batek

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Rojavako Kobane hirian (Mendebaldeko Kurdistan, Siriako Iparralde) egon dira abuztuaren Jon Bingen Landabidea Aranburu (1986), Esther Martin Garcia (1972), Elena Gabriele (1985), Alaitz Berriozabalgoitia Galan (1984) eta Eider Uribe Padilla (1985), Martin Arrasate Iriarte eta Maria Villar Jimenez Sesma ere joan dira. Kobane eta Durangoren arteko senidetza indartzeko, Suargi elkarteak eta Durangoko Udalak adostutako hitzarmenaren barruan joan dira hango emakumeen egiturak ezagutzera. Genero ikuspegitik landutako hitzarmena da hiri bien artekoa.

Zein izan zen bidaiaren helburua?

Esther: Kobanen suntsipenetik kon-

federalismo demokratikoa garatzeko aukera sortu da, berdintasuna, ekologia eta demokrazia oinarritzko printzipio dituen eredu ideologikoa garatzeko aukera. Emakumeen iraultza hasi dute. Bada, marko horretan batzen diren emakumeen egiturak ezagutu ditugu. Lan izugarria egin dute jabekuntzan. Nolakoa izan da esperientzia? Zeintzuk sentsazio ekarri dituzue?

“

Bizi duten egoerak asko harritu gaitu denok, onerako. Suntsipen egoera batetik halako ilusioa eta egiteko gogo sortzea izugarria da

”

Elena: Bizi duten egoerak asko harritu gaitu denok, onerako. Gerra eta suntsipen giro batetik halako ilusioa eta egiteko gogo sortzea izugarria da. Ilusio handiagaz bizi izan dugu bidaia, lehenengo hiru egunak Irakeko Kurdistanen egin genituen arren, mugatik gertu. Baimena geneukan, baina ez ziguten Rojavara sartzen utzi.

Alaitz: Ikusi dugu hango emakumeak gu baino askoz ere antolatua go daudela. Denak lan egiteko gogo handiagaz ikusi genituen. Ilusioa ikus zitekeen bazter guztietan.

Esther: Emakumeak etxean egotetik, ikusezin izatetik, kalean egotera pasatu dira. Borroka egin dute, toki bat irabazi dute. Espazio partekatutak dituzte (milizia mistoak, instituzio parekideak...) baina, horrez gain, andrentzat baino ez diren espazioak ere badituzte, emakumeek kudeatutak, emakumeentzat. Proiektu garrantzitsua da, anbizio handikoa. Baina urte gutxi dira iraultza hasi dutela.

Estatu Islamikoaren eraso bortitza jasan zuen Kobanek 2014an. Nola ari dira berreraikitzen?

Eider: Guztiz suntsitu zuten hiria, %80 desegin zuten. Gaur egun, %20 falta zaie berreraikitzea.

Esther: Zailtasun handiak dituzte, gainera, horretarako. Izan ere, adibidez, blokeoa sufritzen ari dira makinaria astuna sartzeko.

Jon Bingen: Sorpresa handia izan da nola berreraiki duten ikustea. 2016an lau lagun egon ginen han,

eta hiria suntsituta zegoen. Leku batzuk halaxe utzi dituzte, gertatu zenaren ikur moduan. Kontziente dira egoeraz. Agindutako laguntza asko ez da heldu, baina ez dira zain geratu. Lan itzela egiten ari dira.

Orain urte bi egindako bidaia hartatik sortu ziren senidetza eta hitzarmen ekonomikoa?

Jon Bingen: Bai. Han ikusi eta bizita koak ekarri genituen Durangora, eta orduan sortu zen Suargi elkarte. Iaz Durango eta Kobaneren senidetza hitzarmena lotu zen, eta, hori indartzeko, genero ikuspegitik landutako hitzarmena; herri bien arteko lotura sendotzea du helburu. Kontziente ginen gazteak eta andrak zirela iraultza hartako protagonista, eta gu lau mutil joan ginen. Ez genuen haien ikuspuntua lantzeko aukerarik izan eta Andraguneko emakume talde bati proposatu genion Rojavako emakumeen errealitatea ezagutzeko aukera.

Kobaneko Emakumearen Akademia ikusteko aukera izan duzue? Durangok diruz lagundutako proiektua da.

Alaitz: Bai. Siria iparraldeko hiri garrantzitsu guztietan dago

“

Oso eskertuta daude eta oso ondo tratatu gaituzte. Hiriko parke bati Durango izena jarriko diotela esan digute. Politza da

”

Emakumeen Akademia bat, eta formakuntza ideologikoa eta filosofikoa ematen dute. Feminismoa, berdintasuna, askatasuna... lantzen dituzte. Emakumeen Etxeak ere badaude. Emakumeak edo talde feministak batzeko tokiak dira, eta askotariko arrazoiengatik etxetik ihes egin duten emakumeei babes ematen diete.

Jon Bingen: Iazko hitzarmenaren bitartez, Kobaneko Emakumeen Akademian altzariak jarri dituzte.

Esther: Aurten haurreskola batean lorategia egokitzen lagunduko dugu, jolasak jarri gura ditugu. Haurreskola bultzatuz kontziliazioan eragingo dugu, emakumeentzat lanpostu berriak sortu daitezke...

Eider: Oso eskertuta daude eta oso ondo tratatu gaituzte. Hiriko parke bati Durango izena jarriko diotela ere esan digute. Politza da.

Zein beste proiektu ezagutu duzue?

Elena: Emakumeen herrixka deiturikoa. Bakerako lekua da. Bertara bizitzera joateko aukera dute alargunek, seme-alaben kargu dauden emakumeek, ezkondu gura ez dutenek edo biolentzia matxista jasan dutenek. Elkarrekin lan egiteko eta esperientziak partekatzeak aukera dute. 30 bat etxe dituzte prest, eta baita medikuntza naturaleko osasun zentro bat, ikastetxe bat, ortua, emakumearen akademia bat...

Alaitz: Egia bihurtutako ametsa dela esan ziguten. Inguruko herritarrekin ere hartu-eman ona dute gainera, oso garrantzitsua beraientzat.

Esther: Hainbat emakume batzorde daude iraultzan inplikaturik eta premia ikusi zuten.
Jon Bingen: Gizarte patriarkala da hangoa, eta han ere badago biolentzia matxista, hemengo moduan. Emakumeek eurek jo dute proiektua beharrezkotzat.
Eider: Bestalde, hainbat kooperatiba daudelarik ikusi dugu, eta emakume askok dihardute horietan. Etetik kanpo lan egiten dute, politika arloan, egitura sozialetan... mugimendu feminista handia da.

“
YPJ-ek berdintasunean oinarritutako gizartea sortu gura dute, eta askatasunaren esanahia berdefinitu”
■

Emakumea erdigunean dago Mendebaldeko Kurdistanen?
Alaitz: Leku guztietan dago, eta arlo guztietan euren eskubideak betetzen direla bermatzen duen egitura bat dute: Kongreya Star, emakumeek osatua.
Jon Bingen: Emakumeagaz lotutako erabaki guztiak egoki hartzen direla bermatzen du horrek.
Emakume kurduak munduko emakume askoren eredu bihurtu dira?
Esther: Bai, armak hartzea jabe-kuntza suposatzen du beraientzat. Gizonen errespetua lortu dute zelanbait, elkarrekin borrokatu ostean. Toki bat irabazi dute eta hortxe jarraitu gura dute.
YPJ-ak (Emakumeen Autodefentsa Unitateak) oso ezagunak egin dira. Egon zarete eurekin?
Alaitz: Bai. Berdintasunean oinarritutako gizartea sortzea dute helburu, eta askatasunaren esanahia berdefinitzea: askatasuna pentsatzeko eta izateko libre izatea da, bizitza plan propioa izatea. Formakuntza militarra eta ideologikoa dute eta, nabarmendu zigutenez, ideologia matxista suntsitzea da zailena, eta ez Daex-a (El Estatu Islamikoa) suntsitzea.

Daex-ek dituen andra esklabuak askatzea ere badute helburu. Haiei laguntzea erronka pertsonaltzat dute YPJ-ek.
Kobanen ikusitako zer azpimarratuko zenukete?
Alaitz: Kongreya Star hor dagoela uneoro, emakumeen eskubideak betetzen direla ikuskatzeko. Horrela ez bada, esku hartu eta erabakia baliogabetzeko boterea du.
Eider: Elkartasuna. Kurdistango beste lurralde batzuetan ere egin dute eraso eta errefuxiatuak daude. Kobanen harrera egiten diete, lana eskaini. Zailtasunak dituztenek lehentasuna dute lana izateko orduan; tartean, biolentzia matxista jasan duten andrek.
Esther: Emakumeen Legea ere badute. Besteak beste, poligamia, 18 urtetik beherakoen arteko ezkontzak, ohorezko krimenak eta emakumeekiko biolentzia debekatzen ditu, eta erlijio desberdinen arteko ezkontza zibilak onartu. Oso aurrerakoa da.
Elena: Emakume arabiarra integratzeko saiakerak ere harritu gaitu. Arlo politiko zein sozialean

“
Herri zapaldua da kurdua. Badakite zer den sufritzea eta ez dute horrelakorik gura beste inorentzat”
■

interakzioa egon behar dela diote. Erlijioa dela-eta zenbait muga dituzte emakume arabiarrek.
Proiektu integratzailea dute?
Eider: Bai. Errekrutatze kanpalekua ere badute, eta errefuxiatu kanpamenduko Daex-eko emakumeei bizi proiektu berri bat hasteko aukera ematen diete.
Alaitz: Herri zapaldua da kurdua. Badakite zer den sufritzea eta ez dute horrelakorik gura beste inorentzat. Arabiarrek, kristauak, yezidiak... denak batu gura dituzte.





Herriko dendetan erosi beharko da.

Diru-laguntzak emango dituzte eskola materialerako

ZORNOTZA • J.D.

Udalak diru-laguntzak emango ditu eskola materiala erosteko. Ordenantza indarrean sartzean eskatu ahal izango dira, urtea amaitu arte. Laguntzak esku-ratu ahal izateko, familiaren errentak ezin ditu 35.000 euro gordin gaitu. Lau pertsona edo gehiagoko familien kasuan, muga 40.000 eurokoa da. Lagun-tzen zenbatekoari dagokionez, 20 eta 80 euro artekoa izango da eta eskaerak Herritarren Arreta Zerbitzuan egingo dira.

Askotariko arropa eta produktuak merkeago erosteko aukera domekako azokan

ZORNOTZA • J.D.

Dendariak elkartek Saldoen Merkatura egingo du domekan herriko plazan. 10:00etan hasi eta 14:00etara bitartean, askotariko produktua ohi baino prezio merkeagoan eskuratzeko

**Umeentzako tailerrak
egongo dira eta
produktuz beteriko otzara
biren zozketa egingo dute**

aukera egongo da. Azokaren harira, bestelako ekintzak ere egongo dira. Goizean zehar umeentzako tailerrak antolatuko dituzte eta produktuz beteriko otzara biren zozketa egingo dute.

Ikasturtea hasita, Zelaietako eskolako jolas parkeak ordezkotzeko piezei itxaroten jarraitzen du

Navarro alkatearen berbetan, "bandalismoaren" ondorio da egoera; guraso talde batek, oster, "utzikeria" salatu du



Udalaren arabera, litekeena da datorren asterako konponduta egotea parkea.

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Udako oporretatik bueltan, eta ikasturtea hasita, Zelaietako eskolako jolas parkeak erabilgaitz jarraitzen du. Denbora kontua baino ez dela adierazi du Jose Luis Navarro alkateak. "Mantenua daraman enpresa jakinaren gainean dago, eta litekeena da datorren astean bertan iristea pieza berriak".

Guraso talde baten berbetan, ostera, udalaren "utzikeriak" ere eragin du. Lehendik ere parkearen egoera "ez zen egokiena", eta abuztuaren zehar hainbat elementu "guztiz hautsita" agertu zirela salatu dute. Inork ezer egiten ez zuela ikusita, irailaren 3an udalak eskaintzen duen whatsapp zerbitzuaren bidez abisua eman zuten. "Ikasturtea

**Hile hasieran guraso
talde batek salaketa
bidali zuen udalaren
whatsapp zerbitzura**

hasteko egun gutxi batzuk ge-
ratzen zirela kontuan hartuta,

***Ekintza bandalikoak
errepikatzearen ondorioz,
udalak neurriak hartuko
dituela adierazi du***

nahikoa denbora itxaron genuela iruditu zitzaigun", azaldu du Itsaso Saizarrek. "Jolasetako bat udalak jarritako zintagaz zigilatuta zegoen, baina umeak berdin-berdin sartu daitezke oraindik ere", gehitu du Ane Etxeandiak. Eskolako parketik Aitte Kurutzeko parkera lekualdatu da guraso talde hau, seguruago jolasteko asmoz.

Udalaren arabera, parkeak hautsita egotearen arrazoia "bandalismoa" da. "Herriko gazte talde bat horrelako azpiegiturak hausten ari da, baina ez da mantenu arazo bat", defendatu du Jose Luis Navarro alkateak. Azken aspaldian horrelako "ekintzak" errepikatzearen ondorioz udalak neurriak hartuko ditu.

Kultur eskaintzaren gabezia

Azpiegituren egoera arazo sakonago baten ondorioa da, Etxeandian berbetan. "Erroan, aisialdi gabezia dagoela uste dugu. Horrek ez du justifikatzen apurtu izana, noski".

Berriro ere sinadurak batzen hasiko dira Muntzaratzeko auzotarrak

ABADIÑO • M. ZUAZUBISKAR

Urte hasieratik Muntzaratzeko auzotarrak kexu dira semaforoek sortzen duten "arriskuarengatik". Biribilgune bat egin arte, auzotarrak semaforoaren arazoari irtenbide integral bat ematea eskatu zioten udalari. "Semaforoaren zikloa ondo egokitzea gura dugu, semaforoak

anbarrean jarrita arriskua handitu egiten da eta", adierazi du auzotar taldeak. Gainera, oinezkoei barik, udalak autoei ematen diela lehen-tasuna salatu dute.

Hori horrela, beste sinadura
bilketa bat egingo dutela esan dute,
azken aldaketen aurrean abadiña-
rren iritzia jasotzeko amoz.



Elkarretaratzeak ere hasiko dira egiten.

anboto
komunikabideak

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko irailaren 14a
16. urtea - 733. alea

Zuzendakaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaandia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaandia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Fosecoko langileek hamar egun daramatzate greban eta, momentuz, negoziazioak ez dira akordio batera heldu

Zuzendaritzaren azken proposamenean jarrera "erregresiboa" ikusi dute lanpostuei dagokienez, baina kalte-ordainen baldintzak hobeak dira; orain, mahai gainean dutena onartu eta greban jarraitu ala ez erabaki behar dute langileek



Joan zen martitzenean bigarren greba mugagabea hasi zuten langileek.

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO
Foseco enpresako langileek 10 egun daramatzate greban, 42 langileren lanpostuak jokoan daudelako. Azken astean batzar bi izan dituzte zuzendaritzako kideekin, baina, momentuz, ez dago akordiorik.

Zuzendaritzaren proposamenak langile batzuentzako birkokapenak eta aurrejubilazioak jasotzen ditu. Baina, lanpostuei dagokienez, jarrera "erregresiboa" izan dela salatu du ELA sindikatuko Fernando Alonsok. Ordainetan, hasieran baino kalte-ordain handiagoak eskaini dituzte: lanurte bakoitzeko 40 egun, 24 hilabetetan. Orain, langileek erabaki behar dute proposamena onartu ala greban jarraitu. Izurtzako plantak "irabaziak" ematen zituela gogoratu du Alonsok,

ELA sindikatutik berriro gogoratu dute Izurtzako plantak "irabaziak" ematen zituela

Oizen amaitu zen Espainiako Vueltako etapan euren egoera bistaratu zuten

Espainiako Vueltan

Greban dauden artean, euren egoera plazaratzeko aukera denak aprobetxatzen dituzte. Joan zen eguaztenean, Oizen amaitu zen Espainiako Vueltako etapan, igoerako bide bazterrean izan ziren, euren egoera salatzen zuten pankarta eta guzti.



17:30ean hasiko da txapelketa. Txelu Angoitia

52. Euskal Herriko Artzain Txakur txapelketa jokatu da, bihar, Elizburuko landetan

50 urtean lanean dabilen Jose Antonio Azkorbebeitiari aipamen berezia egingo diote

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa Axpen jokatu da, hilaren 15ean, 17:30ean. Gainera, aurten aipamen berezia egingo diote 50 urtean artzain txakur txapelketa antolatzen dabilen Jose Antonio Azkorbebeitiari.

Aurten 52. aldia izango du Gerdiaga Elkartek Atxondoko Udaren, Draxton enpresaren, Atx-Azpi elkartearen, Euskal Herriko Artzain Txakur Elkartearen


eta Urkiola Landa Garapenerako Elkartearen laguntzagaz antolatutako lehiaketak.

Partaideen zerrenda Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko txapelketetako txapeldun eta txapeldunordeek osatzen dute. Guztira hamai-ka txakurrek parte hartuko dute.

Bizkaiko, Gipuzko, Arabako, Nafarroako eta Iparraldeko artzainak egongo dira Axpeko txapelketan



Tel: 94 623 25 22
prestakuntza.mdurango@bizkaia.org



HAZILAN LANA LORTZEKO BIDEA

Unibertsitate-titulua edo goi-mailako prestakuntza-zikloa duten eta langabezian dauden 20-35 urteko gazteei zuzendutako programa.

Nola sentitzen zinen kurtso honetara heldu zine-nean?

Baikorra naiz eta pertsona langilea izaten saiatzen naiz, sortzen diren aukera berrien aurrean gogotsu agertzen dena. Baina saihestezina da gogo gabe sentitzea lan bat aurkitzerako momentuan. Izan ere, gaur egun ez da erreza lanpostu batera sartzeko aukera izatea. Formazio ona, hizkuntzen ezagutza, gaitasun informatikoak eta hainbat konpetentzia izanda ere, beti faltako zaigu baldintzaren bat lanpostu jakin bat betetzeko. Hainbat curriculum bidali ostean eta erantzunik ez dagoela ikusita, normala da frustrazioa sentitzea. Edozein motatako galdarak egiten dizkigute eta nolabaiteko jarrera ezkor batek kolokan jartzen gaitu momenturen batean.

Zertarako balio izan dizu kurtso honek?

Nik imajinatzen nuena baino askoz gehiago ikasi dut kurtsoan. Jarrera ezkorren edo gogo gabeen aurrean garrantzitsuena geratzea da; zure helburuak zeintzuk diren pentsatu eta horren arabera zein bide egin behar duzun aukeratu behar duzu, betiere nor zaren ahaztu gabe. Zure ideiak eta interesak zeintzuk diren buruan izatea da gakoa, eta kasu honetan, kurtsoak horretarako aukera ematen du. Ez da bakarrik



Miriam Rodriguez (34 urte)
Filosofian Doktoretza
Zientziaren eta Teknologiaren Gizarte Ikasketen Unibertsitate Masterra

ezagutzen ditugun zeharkako gaitasunak menperatzea, baizik eta auto-ezagutza prozesu bat hastea da, helburuak finkatzea eta horretarako beharrezkoak diren eta inguruan ditugun tresnak ezagutzea. Azken finean, oreka bat bilatu behar da, gure ahuleziak identifikatu eta gure bertuteei garrantzia eman.

Gomendatuko zenioke bateren bati kurtso hau?

Bai, inolako zalantzarik gabe. Nire egoera bera bizi izandako edozeini gomendatuko nioke, esperientzia oso aberasgarria baita.

Orokorrean, zuk bilatzen zenuena eman dizu kurtsoak?

Bai, sobera. Kurtsoak aukera asko ematen dizkizu, denak onak. Ez dizkizu bakarrik konpetentzia berriak erakusten, baizik eta norbere helburuak lortzeko beharrezkoak diren ilusioa eta baikortasuna izateko behar den konfiantza eta segurtasuna ematen dizkizu.

Lau hilabeteko beka, frankismoak Elorrion izandako eragina aztertzeke

Mikel Diegok jasoko du beka; udalak eta Laumunarrietak elkarlanean abiatu dute



Mikel Diego, beltzez, Elorrioko Udaleko eta Laumunarrieta 1937ko ordezkariekin

ELORRIO • ARITZ MALDONADO

Memoria historikoa ikertzeko asmoz, beka deialdia zabaldu zuten apirilean Laumunarrieta 1937 elkarteak eta Elorrioko Udalak. Espainiako gerrak eta frankismoaren lehenbiziko urteetako errepresioak herrian izan zuten

Gerrak 75 hildako eragin zituen; 40 preso eta 10 esklabu elorriar ere egon ziren gutxienez

eragina ikertzea gura dute. Mikel Diego historialari bilbotarrak jaso du ikerketa hori egiteko ardura eta, horretarako, artxibategietan ikertu eta elorriarren zuzeneko testigantzak jasoko ditu. "Egia historikoa ezagutzea eskubidea da. Elorrion gertatutako eskubide

urraketak aztertu eta errepresioa jasan zuten bizilagunen izen-abizenak jartzea da ikerketaren helburuetako bat", azaldu du Diegok. Ofizialki, irailaren 1ean hasi zuen historialariak ikerketa, eta datu argigarriak aurkitu ditu jada. Hamarkada horretan, 75 hildako, 40 preso eta 10 esklabu elorriar egon ziren, gutxienez.

1937ko Elorrioko bonbardaketaren 80. urteurrenaren baitan

Udaletik dei egin diete elorriarrei testigantzak batu eta Laumunarrieta elkartera joateko

Lau hilabeterako dirulaguntza jasoko du Mikel Diegok ikerketa egin ahal izateko

eratu zen Laumunarrieta 1937 elkarte, eta memoria historikoa berreskuratzea hauspotzen ari da udalagaz batera. "Aitita-amamen iragana ezagutu behar dugu, latza izan arren, ostera gertatu ez dadin", azaldu du Txus Arrieta Gizarte arloko zinegotziak, eta elorriarrei testigantzak jaso eta elkartera joateko deia egin die.



Kartelaren irudi bat

San Migel jaiak iragarriko dituen kartela aurkeztu dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Asteon aurkeztu dute Iurretako sanmigelak iragarriko dituen kartela: Unai Agorriaren *Iurretako plazan* lana. Jai egitaraua aurkezteagaz batera erakutsi dute kartela Aitte San Migel Jai Batzordeko kideek. Aurten bigarren antolatutako umeen kartel lehiaketa, berriz, Xabat Agirrek irabazi du. Irailaren 28tik urriaren 7ra iraungo dute sanmigelek, baina aurreko astebururako ere prestatu dituzte ekitaldiak.

Zaldibarko Udalak ahalduntze tailerrak antolatu ditu beste urte batez

ZALDIBAR • A.M.

Ikasturte berriagaz batera, martxan jarriko dituzte emakumeen ahalduntzerako ikastaroak. Lehenbiziko ikastaroa *Menopausia eta orain zer?* izango da. Desirak elkarteak eskainiko

Ikastaroa irailaren 25ean eta urriaren 2an izango da, 18:00-20:00 bitartean

du ikastaroa eta adin guztietako emakumeentzat dago zuzenduta. Apuntatzeko azken eguna irailaren 25a izango da eta, abisatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken urteetan lez, irailaren 11 gomuta eguna izan zen Berrizen, frankismoa sufritu zuten lagunak gogoratzeko.

Horrez gain, modu anonimoan errepresioaren kontra borrokatu ziren eta euren ideia eta familiak defendatu zituzten emakumeak ere gogoan izan zituzten. "Emakume hauek inongo aitortpenik jaso barik joan ziren eta, berandu bada ere, gure esker ona eskaini gura

Errepresioaren kontra borrokatu ziren emakume berriztarrek ere omendu zituzten

Irailaren 11ko ekitaldian egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatu dituzte

Frankismoa sufritu zuten lagunak gogoan izan zituzten martitzenean egindako ekitaldian

Matxismoaren eta patriarkatuaren kontrako borrokagaz bat egin zuten Berrizen

diegu bihotzez guztiei", esan zuten Berriz 1936 elkarteko kideek. Gainera, matxismoaren eta patriarkatuaren kontrako borrokagaz bat egin gura dutela adierazi zuten.



Ekitaldiaren ostean lore eskaintza egiten zuten martitzenean.



ABARKETERUENA

Giro euskaldun eta atsegina egun osoan!

Ogitartekoak - Hamarretakoak - Menuak - Pintxoak

Iturritxo kalea, 6 • Txanporta plaza 48220 ABADIÑO - Tel.: 944 657 790



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RP5: 145-13

Aurtengo helburua hiri mugikortasun asanaria sustatzea, bidean dauden kalitate eta zerbitzu publikoak hobetzeko.

koen bilketa bizikletan... As-
te dibertigarria eta kontzien-
tziazioz beterikoa, dudarik
gabe. Kontuan hartu zapa-
tuko spinning maratoin
parte hartzeko, izena eman
behar dela *durangokomugi-
kortasunastea@gmail.com*
emailean. 25 parte-hartzaile-

lek soilik izango dute aukera
ekintza honetan parte har-
tzeko.

Ekintza hauetako batzue-
tan, parte-hartzaile izango
dira Leire Serrano Olaba-
rri, DeustoTech Mobility
europar proiektuen ardu-
raduna, eta Pilar Elejoste,
Deusto Fundazioko Ikerke-
ta teknikari espezializatua.

Irailaren 21ean, barikuan,
10:00etan, Berdetxe Green
Mobility Forum jardunal-
dian izango ditugu bi profe-
sionalak TIMON proiektua
aurkezten. Ibilbide multi-
modal, malgu, jasangarri
eta seguruentzat Deusto-
Tech-ek garatutako tresnak
hurbilduko dizkigute.



MUGIKORTASUN ASTEA 2018

IRAILAK 19-20
Segurtasunerako kontzientziazio saioak.

IRAILAK 21
Berdetxe, Green Mobility Forum.

IRAILAK 22
Mugikortasunarekin lotutako aktibitateak.
Spinning maratokia.
Plastiko bilketa bizikletan.

IRAILAK 25
Road Show, errepideetako esperientziak.

#MOBILITYWEEK



DURANGO
Ustea - Auzantzeri



berdeago



STOP
ERABILTZAILEAK
SEGURASUNAREN ERABILTZAILEAK



durango
durango



MAR
2018



**EUROPEAN
MOBILITY
WEEK**



DURANGOKO
MUGIKORTASUN
ASTEA 2018

SPINNING
**MA-
RA-
TOIA**

01
Izena emateko
durangokomugikortasunastea@gmail.com
edo Whatsapp bidez 687 180 156

02
Bidali beharreko datuak
izen abizenak eta telefono zenbakia

Irailak 22
11:00 - 14:00
Ezkurdi Plazan



ELKARRIZKETA

Leire Soerañdo Galarraga Deustu Telemobilfityreparapikoietan aduna.
Pilar Egozte Deustu Fudazioko kerketa teknikari kapez alizatu.

gikloot Mugil jasaguri Alse
te aduak itil buker d itungun
te k bita b eta ahik a l d i z e n
a d i b e g u n d a g b e r i t a k d u t i z a
t a o l e a k i n h a g i k e n t e a k w a
j a s a n d a n r i a r k o s e e i d u a k
b u l a t z e g i t a a c h i . O s a z u r k o
h e l b u n a h e k o r E r a k u n d e e ;
e g u n g e r a h i r u t e k o 6,5 t r e h
b i o p k a r i s h a n d l e n e t a k o a
k u t s a d u r a a t m o s f e r i k o a r i
a n d r o i e z g i t e a d a . O s a s u -
n a r e n M u n d u k o E r a k u n -
d e a r e n a r a b e r a , u r t e r o
6,5 m i l i o i p e r s o n a h i l t z e n
d i r a k u t s a d u r a a t m o s f e r i -
k o a r e n o n d r o i o z .

“Hizlari, bertsolari eta entzuleen arteko giro aparta sortzen da 'bertsozientzia' saioetan”

'Jakinduriek mundua erreko dau' ekimenak zientzia eta bertsolaritza uztartuko ditu; Kike Amonarrizek aurkeztuko du

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Irailaren 21ean ekimen berezi bat hartuko du Plateruenak, 19:00etan, EHuko Kultura Zientifikoko Katedrak antolatuta eta Durangaldeko Bertso Eskolaren laguntzagaz. Jone Uria eta Aitor Sarriegi bertsolariek eta Olatz Perez de Viñaspre, Leire Sangroniz eta Josu Lopez-Gazpio zientzialariek parte hartuko dute. Kike Amonarrizek aurkeztuko du.

Zientzia eta bertsolaritza. Posible da biak uztartzea?

Bai. Eta, nire ustez, oso erraz, gainera. Bertsolaritza edozein gairen inguruan aritu daitekeen diziplina da, eta gai horietako bat zientzia izan ahal da. Egin kontu: Txirritak norteko ferrokarrilari jarritako bertsok aspaldikoak dira, eta bertsolaritzak zientziari kantatutako bertsotzat har daitezke.

Zein da saioaren oinarria?

Orain dela lau urte hasi ginen *bertsozientzia* saio hauekin. Zientziari buruzko bakarrikzeta bat dago, eta gero bertsolariek horri kantatzen diote. Harritzea eta entzuleek ondo pasatzea dute helburutzat beti. Ohartu ginen sekulako formatua zela: indartsua, atsegina, entrete-nigarria, umoretsua, harrigarria... Hizlari, bertsolari eta entzuleen

arteko giro aparta sortzen da. Urterik urte gero eta saio gehiago egiten ari direla da horren frog, eta parte hartzen dutenek errepikatze gogoa izaten dutela.

Zertaz berba egingo dute Durangoko hizlariek?

Olatz Perez de Viñasprek sistema adimentsuen aurreiritziez hitz egingo du. Leire Sangronizek polimerozko billetei buruzko aurkezpena egingo du; diruaren hotsa entzungo dugu eta horri buruzko azalpenak. Josu Lopez-Gazpiok entzuleei oso gogoan geratuko zaien hitzaldia emango du: *Burua galtzen denean* deitzen da. Bertsolariak Jone Uria eta Aitor Sarriegi izango dira. Une atsegina pasatuko du jendeak. Gauza harrigarriak ikasi, eta behar bada baten bat oparitzo bategaz bueltatuko da etxera.

Komeni da zientzia ere euskararen esparrura ekartzea, ezta?

Dudarik gabe. Euskaraz bizi nahi badugu eta euskarak aurrera egingo badu, gizarteko esparru guztietara zabaltu behar du. Horrelako ekimenek laguntzen dute jende gehienontzat ohikoak ez dien arlo batzuekiko harremana ere euskararen bidez garatzen. Zientziaz eta bertsolaritzaz gozatzea eta euskaraz ondo pasatzea galdu ezin daitekeen luxu bat da.



Kike Amonarriz, ekimenaren aurreko edizio batean.

Espainiako Poliziak Vueltako erakusmahai batean herritarrei armak erakutsi izana salatu dute Durangon

Aisialdiko parke hori ekartzeko, udalak 25.000 euro eman dituela salatu dute EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak

DURANGO • J.D. / M.O.

Vueltaren babesleek aisialdirako zenbait stand ipini zituzten eguaztenean Durangoko Ezkurdin, eta horien artean Espainiako Poliziarena ere bazegoen. Armak erakutsi zituzten eta zelan erabiltzen diren ere azaldu zuten herritarren aurrean, tartean umeak zeudela. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak ez dute ondo ikusi, eta, gainera, salatu dute udalak 25.000 euro eman dituela aisialdi parke hori Durangora ekartzearren. "25.000 euro gastatu ditu gobernu taldeak Espainiako Itzulua datorrela-eta. Zertarako? Umeei armak nola erabili irakasteko antza", dio EH Bilduk. Hari beretik jo du Herriaren Eskubideak. "Hauek al dira kirol arloan sustatu gura ditugun balioak?", galdetu dute.



Polizia Nazionalak ipinitako standaren irudi bat, Julian Riosek (Herriaren Eskubidea) ateratako argazkian.

Jailetako kartelen harira polemika piztu da, eta kartel bi erretiratu dituzte

DURANGO • M.O.

Udalak gaur emango du jakitera zein izango den San Fausto jaia iragartzeko kartela. Aukeraketarako bide horrek, baina, ezustekoak izan ditu. 32 karteletik zazpi finalista aurkeztu zituen udalak eta botoa emateko deia egin zuen. Biharamunean, ordea, kartel bat erretiratu zuen akats ortografiko bategatik, eta

32 karteletik zazpi finalista aurkeztu zituen udalak eta botoa emateko deia egin zuen

handik ordu gutxira beste bat ere bai, irudian agertzen zen basilika Mexikoko Durango hirikoa zelako.

Polemikak segida izan du sare sozialetan. Beste zenbait karteletan plagioa egon zitekeela salatu dute batzuek. Azkenean, egileek irudien eskubideak zituztela erakutsi eta antolatzaileek mantendu egin dituzte.



Maristak ikastetxeak, astelehenean.

Umeen eskubideak gogoratuz hasi dute ikasturtea Maristak ikastetxean

DURANGO • M.O.

Erronken bidez garatzen dute heziketa Maristak ikastetxean, eta hasiera ere lan estilo horretara egokitzeko aprobetxatzen dute, era ludikoan. Gainera, hasierako erronkari ukitu soziala ematen diote, Dani Irazola zuzendariak azaldu duenez, eta aurtengoan umeen eskubideak hartu dituzte aintzat. Kartulinar, tapoiak eta beste hainbat material erabilita, umeentzako jolas bat sortzeko erronka zuten ikasleek astelehenean.

Bestalde, ziklo ondoko berri bat abiatu dute ikastetxean, zibersegurtasunari buruzkoa. Aitzindaria da erkidegoan, eta hogeik ikasleek osatu dute lehen taldea.

GRAN HOTEL DURANGO

Uda giroak nazioarteko zaporea utzi du Gran Hotelen. Beste herrialde batzuetako bezeroek, eguraldi ona lagun, terrazan mokadutxoak hartzeko edo kanpoko igerilekuaz gozatzeko aukera izan dute.

Bertakoek ere gogotik gozatu dute Gran Hotelen zerbitzuez, batez ere, uda inguruan egin dituzten ezkontzetan. Izan ere, gerrogo eta bikote gehiagok Gran Hotelen ezkontzeko hautua egiten dute, egun berezi horren ardura eskarmentu handiko talde profesional baten esku utziz. Ezkontza zibila lorategian egiteko aukera, koktel zoragarriak, azken zehaztasunera arte diseinatutako menuak...

Ikasturte hau indarberrituta abiatu du hoteleko lantaldeak. Gustu eta poltsiko guztietarako menuak diseinatzen

trebeak dira. Familiako ospakizunak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak kategoriako bazkari zein afariagaz biribiltzeko aukera eskaintzen dute. Aurtengo San Faustoak ere ate-joka ditugun honetan, jaietako menuak ere eskainiko dituzte.

Bestalde, orain urtebete martxan jarritako asteburuetako menuak arrakastaria handia izan du. Aste bitartean ere, eguneko menuaren inguruan bertako enpresari, merkataria eta abarrek batzar informalak inguru eder honetan egin dituzte. Enpresek ere hementxe antolatzen dituzte beraien ekitaldiak.

Beraz, bezeroaren beharretara egokitzen den zerbitzua eskaintzea da Gran Hoteleko lantaldearen helburua. Hurreratu zaitetz eta atseginez erantzungo dizute.



GRAN HOTEL
DURANGO

Gasteiz bidea 2 -Durango
Tel.: 94 621 75 80
www.granhoteldurango.com

"Guretzat bezero denak dira garrantzitsuak: futbol talde bateko jokalaria zein eguneko menua jatera datorrena"



Jon Soloeta sukaldari durangarrak Gran Hoteleko ostalaritza arloaren ardura hartu zuen orain urtebete. Soloetaren ideia berriak Laura Carrillo metrearen 20 urteko eskarmentuagaz uztartuta, lan talde bikaina sortu dute.

Jon, urte honen zein balorazio egiten duzu?

Jon Soloeta: Urte interesgarria izan da. Ezarri gura izan dudana helburuetako bat jendeak sukaldaritza dudana filosofia ulertzea da. Talde osoan lan dinamika berri bat ezartzen jardun dugu.

Talde horretan Laurak funtzio garrantzitsuak betetzen du. Zelan funtzionatzen duzue elkarlanean?

Jon Soloeta: Lauraren esperientziak ematen didan babesagaz garatu

dugu dena. 20 urteko eskarmentua du eta oso ondo daki hotelak zelan funtzionatzen duen.

Laura Carrillo: Jonegaz abiatu dugun aro berri honetan, alde handia igarri dut aurreko urteekin alderatuta. Egun askotan bete egiten da jatetxea, eta bere proposamenak harrera oso ona izan du.

Askotariko zerbitzuak eskaintzen dituzue. Eguneko menua, eskontzak, ospakizunak, hotelera datozen kirol taldeen elikadura... Zelan egokitzen zarete bakoitzaren beharretara?

Jon Soloeta: Hori esperientziak erakusten dizu. Urteak eman ditut atzerrian zein Euskal Herrian goi mailako jatetxeetan, eta baita Otxandion nuen jatetxean ere. Ezagutza horiek guztiak hotelean aplikatzea izan da gakoa. Ikusi du-

gu, gainera, funtzionatzen duela, eta zerbitzu pertsonalizatu bat emateko gai izanda, emaitza onak lortu daitezkeela.

Laura Carrillo: Sarritan lau zapabost zerbitzu aldi berean ematen ditugu zenbait saloi eta jantokitan, eta hori guztia antolatzea erraza ez den arren, moldatzen gara. Bezeroa pozik joatea da gura duguna. Guretzat bezero denak dira garrantzitsuak: futbol talde bateko jokalaria zein eguneko menua jatera datorrena.

Ospakizunetan bezeroak exigenteak dira. Zelakoa izaten da hartu-eman?

Laura Carrillo: Ekitaldi bat martxan dugunean bezeroak lehentasuna du. Konfiantzazko jende profesionala lanean jartzea garrantzitsua da.

Kirolgune berria egiteko lanen esleipen prozesua hasi du udalak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Pilotalekuko lehen solairuan kirola zein bestelako ekintzak egiteko espazio berria sortuko du udalak. Lan horien inguruko baldintza orria abuztuko udal-

Lanen aurrekontua 174.861 eurokoa da eta hiru hilabeteko epea egongo da amaitzeko

batzarrean onartu zuten eta dagoeneko aurkeztu daitezke eskaintzak. Baldintza orriak jasotzen duenez, lanen aurrekontua 174.861 eurokoa da eta hiru hilabeteko epea dago proiektua amaitzeko.

Datorren astean amaituko dituzte irisgarritasun lanak Mallabiko eskolan

MALLABIA • J.D.
Mallabiko eskola irisgarriago egiteko lanak amaitzear daude. Ekainean, ikasturte amaieran, hasi zituzten eta datorren astean amaituko dituzte. Zati bat aurretik eginda zegoen eta, orain, falta den aldea amaituko dute. Proiektuaren inbertsioa 240.000 eurokoa izan da eta %90 inguru diru-laguntzen bidez ordaindu dute. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik eta Hezkuntza Sailetik jaso ditu laguntzak udalak.

Gesaltza Añanako gatzaren haranera irteera antolatu du nagusien elkarteak

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Irailaren 19rako, Gesaltza Añanako gatzaren haranera irteera antolatu du nagusien elkarteak. Deialdia zabala dela esan dute; bazkideek 30 euro ordainduko dituzte, eta besteek, 35. Herriko tabernan apuntatu behar da, 14a orduko. 08:30ean irtengo da autobusa, Garaiko plazatik. Lehenik, Santa Katalinako loretegi botanikoan bisita gidatua egingo dute, eta, ostean, Gesaltzara joango dira. Angoston bazkalduko dute gero.

Eneko Atxa eta Maialen Chourraut Ttap aplikazio multimediamiako protagonistak

Uztailean aurrerapena kaleratu eta gero, irailaren 21etik barikuro Ttapien ale berriak irakurri, ukitu, ikusi eta entzun ahal izango dira. Bizkaiko aurkezpena irailaren 19an izango da, Euskalduna jauregiko Eneko Bilbao jatetxean

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Ttap aldizkari multimedia indarberrituta dator udako oporren ostean. Uda aurretik kaleratutako 0. aleak izandako harrera ezin hobea izan da. Apple eta Android app dendetan balorazio oso altuak izan ditu. Eta hori gutxi balitz, Ttap aplikazioa 10 egunez deskargatuener artean izan da bere kategorian, Androiden zein Applen. Ttapien bultzatzaileek diotenez, proiektuaren estreinako aleak uste baino harrera hobea izan du. "Euskarazko hedabide bat

Ttap aplikazioa 10 egunez deskargatuener artean izan da bere kategorian

ez da egunero sailkapen horretan izaten, eta, beraz, baditugu pozik egoteko arrazoiak, zalantzarik barik", azaldu du Jone Guenetxea Ttapeko presidentek.

ANBOTO, Goiena (Debagoiena), Baleike (Zumaia), Tokikom (tokiko hedabideen bateragunea) eta Esguard (Katalunia) dira egitasmo berritzaile honen sortzaileak. "Euskarazko kalitatezko edukiak mugikorretan eta tabletetan kontsumitu



Donostian uztailean egin zuten Ttapien aurkezpeneko irudia.

ahal izatea da helburua. Trenean, autobusean, etxean zein paseatzen", gaineratu du Guenetxeak.

Bizkaiko aurkezpena
Ttapien aurkezpena egingo dute datorren irailaren 19an, Bilboko Euskalduna jauregian Eneko Atxa sukaldari zornotzarrak duen jatetxean. Kike Amonarrirek zu-

Ttapien aurkezpena egingo dute irailaren 19an, Euskaldunako Eneko Bilbao jatetxean

zenduko du ekitaldia. Eneko Atxa izango da, hain zuzen, Ttapien lehen aleko protagonistetako bat. Jone Guenetxea ANBOToko zuzendariak sukaldari zornotzarra elkarriketatuko du. Bestalde, Sara Gandara kazetariak Maialen Chourraut kirolaria elkarriketatuko du. Hau guztia, irailaren 21etik aurrera izango da ikusgai.

Irailaren 23an Bittor Kapanagari buruz egingo duten bisita gidatuan izena eman daiteke dagoeneko

Kapanagazaleen Taldeak eta udalak antolatzen duten bigarrena izango da, uztaileko lehenengoaren ostean

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Bittor Kapanagak (Otxandio, 1925-2011) euskal kulturari eta euskarari egindako ekarpena ezagutzeko, Kapanagazaleen Taldeak eta

toki bisitatuko dituzte; bere jaiotetxea, esaterako. Izen-ematea mikoletaelkarte@gmail.com helbidera idatzita edo 663 901 248 telefonora deituta egin daiteke. Bertan bazkaltzeko aukera dago, nork bere bazkaria ordainduta.

Bittor Kapanagak ekarpen nabarmena egin zien herriari, euskarari eta euskal kulturari

Bittor Kapanagak ekarpen nabarmena egin zien euskarari eta euskal kulturari, eta baita bere jaioterriari ere, Otxandion etxebizitza eta fundizio kooperatiba bana eta zinema sortzen lagundu zuelako.

Bisita doakoa da, 11:00etan hasiko da eta ordu bi inguruko iraupena izango du

Otxandioko Udalak bisita gidatua antolatu dute, aurtengo bigarrena. Irailaren 23an egingo dute, domekan. Bisita doakoa da eta 11:00etan hasiko da, Otxandioko udaletxearen aurrean. Kapanagaren bizitzan esanguratsuak izandako hainbat



Uztailean egindako lehenengo bisita gidatuko irudia.



Karmelo Aranguena

Hareek denporak!

Espainiako Vuelta eten zuen ekintza politikotik, 40 urte

Eguaztenean Oizen amaitu zen Espainiako Vueltako etapa, eta txirrindularitzaren milaka zale igo ziren bertako maldetara. Etapaz disfrutatzeaz gain, aldarrikapen politikoak egiteko aprobetxatu zuten askok, Gure Esku Dagok deituta.

Orain 40 urte ere ekintza politiko esanguratsua egin zuten zenbait lagunek Iurretan, lasterketa Donostiara bidean zihoa-nean. Kasu hartan, enborrak

errepidera atera eta saboteatzea izan zuten helburu, garaiko tentsio politikoaren isla. Hiru egun baino ez ziren pasatu Guardia Zibilak Jose Mari Arrazola Ania Txiki eta Alberto Garcia Marmol Ruso ETAkide durangarrak hil zituenetik. Egun hartan amaitzen zen Vuelta, Donostian, eta Bernard Hinault handia izan zen garaile. 2011ra arte, lasterketa ez zen normaltasunez igaro Euskal Herritik. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



Auzolotsa

Aramotz auzoan, lehen abereen hiltegia zegoen lurzoruetan aisialdirako eta jolasteko gunea ezarri behar da. Leku horretan beharrezkoa da. Baina, momentuz, ez omen dago dirurik.

San Fauston, bertako auzo elkarteek kudeatzen duten udal tabernak konponketak behar ditu; bitartean, itxita dago auzoari bizia ematen zion topagunea. Elkarrekin askotan eskatu dituzte beharrezkoak diren konponketak, baina udal gobernuaren erantzuna dirurik ez dagoela da.

Iñurri eta Geu be gazteen elkarteek Durangoko Garai jauregian dituzte euren lokalak. Jauregi hori erabat zaharkituta dago eta, horretaz gain, uda honetan lapurreta izan da bertan. Eraikinak konponketak eta egokitzapenak behar ditu eta, bitartean, elkarte horiek lokal berriak behar dituzte. Baina, dirudienek, ez dago dirurik udalean.

Artikuluak bukatu arte jarraitu ahal izango nuke udal laguntza ekonomikoa behar duten proiektu edo obrek. Eta egitasmo horiek dirua lortzen ez duten bitartean, udal gobernuak 25.000 € publiko eman diete hainbat enpresa pribaturik eta polizia nazionalari (espainola, noski), asteazken honetan euren standak Durango erdian jar ditzaten. Zertarako 25.000 €? Ez dakigu, honetaz ere ez digutelako ezer esan gainerako talde politikoei. 25.000 € publiko tortura eta errepre-sioa irudikatzen duen polizia gorputz batek bere armak eta tramankulu militarrik Durango erdian jartzeko.

Benetan, gureta ere, ez zenukete hain txarto egiten.

Durangaldea asteen

Neska gazteentzat programa berezitua prestatu dute aurten Jabekuntza Eskolan

Durango I Aurten Jabekuntza Eskolan neska gazteentzat programa berezitua eskainiko dutela da nobedade nagusietako bat. 14-17 adin tarteko neskek *Dantza, sorkuntza eta mugimendua jolasen* izeneko ikastaroa, bideo-bikoizketa tailerra eta autodefentsa feministarako tailerra izango dituzte aukeran.

Pilar Riosek adierazi du gazteekin lanean jarraitu gura dutela, "gero eta garrantzitsuagoa delako indarkeria matxistaren kontrako borrokan neska gazteek kontzientzia feminista hartzea".

Orain Presoak dinamika aurkeztuko dute eguaztenean Plateruena Kafe Antzokian

Durango I Eguaztenean Orain Presoak dinamika aurkeztuko dute Durangon, espetxe politikaren aldaketa bultzatzeko asmoz. Joseba Azkarragak aurkeztuko duen ekitaldia 19:00etan hasiko da Plateruena Kafe Antzokian. Bertan agiria irakurriko dutela eta atxikimenduak jasoko dituztela jakitera eman dute ekimenaren sustatzaileek.

Mendi istripuetan hildako mendizaleak gogoratuko dituzte domekan Besaiden

Durangaldea I 1995az geroztik mendi istripuetan hildako mendizaleak omentzen dituzte Besaiden. Aurten, Erdellari egokitu zaio irailaren 16ko ekitaldia antolatzea. 10:30ean, txistulariak eta txalapartariak egongo dira. Gero, oroimen ekitaldi zibila egingo dute. 11:30ean, Euskal Mendizale Federazioko presidentek hitz egingo du, eta, 12:00etan, dantzariak eta txistulariak egongo dira.



Joan zen domekan Juan Orobiogoitia iurretarra Perun omendu zuten

Iurretara I Atzo 300 urte bete ziren Juan Orobiogoitiaren jaiotzatik, eta horren harira hainbat ekitaldi prestatu dituzte Iurretan eta Lirioan (Peru).

Gaztetxoa zela joan zen Orobiogoitia Perura, 11 urte gazte umezurtz geratu eta gero. XVIII. mendean, Peruko merkataritza eta ekonomia euskaldunen kontrolpean zeuden, eta hori izan ei zen hara joateko motiboa. Merkataria izan zen han. Lortutako diruagaz, 1801ean sortutako Iurretako lehen letren eskola bultzatu zuen.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9 - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zerbakiak **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com



afede



GURE JOSTAILU-DENDA



25,95€

8-13 urte bitarteko haurrentzat da,
560 proba eta galderekin.
Aurtengo festentzako joko egokiena!

DURANGO: SIMPLY Merkatal Zentroa / Fray Juan de Zumárraga 17 - ZORNOTZA: Gudari 49

"Euskaltegiko giroa oso ona da; lagun artean egongo bagina legez joaten gara"

Carol Martinek euskara ikasteari ekingo dio hasi berri den ikasturtean. Bigarren urtez, Durangoko AEKra joango da, Pinondon



DURANGO • JONE GUENETXEA

Ama izan zenean semeagaz euskaraz komunikatu gura zuela argi izan zuen Carol Martin Mendezek (Durango, 1982). Horixe izan zen euskara ikasteko behar zuen bultzada. Aurtengoa bere bigarren ikasturtea izango da euskaltegian.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Joan zen ikasturtean hasi nintzen, eta aurren ere jarraituko dut.

Zerk bultzatuta hurreratu zinen AEKra?

Denbora asko neraman apuntatu guran, baina ez nuen pausoa ematen. Ama izan nintzen eta horixe izan zen erabakia hartzera bultzatu ninduen. Arrazoi horrek animatu ninduen gehien, semeagaz euskaraz berba egin ahal izateak.

"Giroa oso ona da eta lagun artean egongo bagina legez ibili naiz. Esperientzia oso ona izan da"

Iaz zerotik abiatu zinen ala bazenekien euskaraz apur bat?

Txikitan euskaraz berba egiten nuen, baina praktika faltagatik ahaztu egin zitzaidan azkenean. Ulertu bai, baina ez nuen nire burua berba egiteko gai ikusten. Gero, zer edo zer txarto esango nuen beldurrez lotsa apur bat ere ematen zidan. Beti izan dut euskaraz ondo berba ez egitearen arantza hori.

Etxean euskaraz berba egitea da erronka?

Semea ikasketa guztiak euskaraz egiten dabil, eta neuk ere beragaz euskaraz berba egin ahal izatea garrantzitsua dela uste dut.

Zenbat denbora eskaintzen diozu euskara ikasteari?

Egin dudana ikastaroan, gelara joatea nahikoa da, ez dugu etxerako lanik. Baina nire aldetik libururen bat irakurri eta horrelakoak egin ditut.

Zer eman dizu euskarara berriro hurbiltzeak?

Asko gustatu zait. Iaz, hiru orduko eskolak ziren eta pentsatzen nuen luze egingo zitzaidala. Baina gelara joateko gogo handiagaz egon naiz. Jende berria ezagutzen duzu eta beste gauza batzuei buruz berba egiteko aukera ematen dizu. Berba egitera askoz ere gehiago animatu naiz. Euskaltegian giroa oso ona da, eta lagun artean egongo bagina legez ibili naiz. Esperientzia oso ona izan da.

Behin pausoa emanda, euskaraz bizitzeko aukerak sortu zaizkizu?

Nire ingurua ez da oso euskalduna, baina aurkitu daitezke aukerak, gura izanez gero. Eta egunerokotasunean ere bai, ogia erostera zoazenean zein beste hainbat momentutan. Gura baduzu, beti sortzen dira aukerak.

2018-2019 IKASTURTE BERRIA

Folder
94 621 73 42 - www.folderdurango.es
ZUMALAKARREGI KALEA, 10, 48200 DURANGO, BIZKAIA

BIODANZA ASTEA

Egunerokoa magikoa bihurtzen da
KLASE IREKIA ETA DOHAINIK

Irailak 18, asteartea
Txintxirri Ikastolan 18:30

Mentxu Arjonilla
626 661 292
mentxubiodanza@hotmail.com

Pipirikez | Zorrien eta bartzan deuseztapen zentro espezializatu

Teknologia berriztatzailea, oso eraginkorra, %100 naturala, produktu toxiko barik.

AURRETIKO ZITA: www.pipirikez.es
info@pipirikez.es - Tel.: 688 632 933
Aguirre Lehendakari 4, DURANGO

35'95€-tik AURRERA

Tratamendu eraginkorra zorri eta bartzak 60 minutuan kenduta



Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK

Zatoz AEKra

Euskalduntze maila guztiak (A1, A2,B1,B2,C1)

4. maila (C2)

online ikastaroak

Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · abarrak@aek.eus

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · abizari@aek.eus

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · zornotza@aek.eus

Berriz / Zaldibar / Abadiño/Iurreta / Izurtza / Mañaria ·
662 966 827 · durangaldekoaek@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
mailaren bat egiaztatuz gero

BIZKAIKO ALDUNDIA:
deskontu-bonuak

UDAL GUZTIEK

Matrikula zabalik 16 urtetik gorakoentzat
IKASTURTEA: urritik-ekainera
Izena emateko epea irailaren 3tik 21era

Bulego ordutegia
 10:00 - 13:00 / 15:30 - 18:00
 Ostiraletan eta jai bezperetan 10:00 - 13:00

ESKAINITZA PRESENTZIALA eta AUTOIKASKUNTZA

A1, A2, B1, B2 eta C1 prestatzeko ikastaroak
 Helburu berezietako taldeak
 Dirulaguntzak eta hobariak
 Langabetuek matrikula merkeago

SKYPE modulu guztietan
 BERBALAGUN



DURANGOKO UDAL EUSKALTEGIA

Saibi kalea 10, 3.a / 48200 DURANGO / Tf: 94 603 00 40

euskaltegia@durangoeuskaltegia.net

Matrikula eta Proba: Euskaltegia / On-line: www.durangoeuskaltegia.net

*Berezitako heziketa, mugagabea eta denentzako aukera
 bilakatzen dena, bakoitzaren ezaugarriak kontuan izateagatik*



Arreta goiztiarra
Eskolako laguntza psikoedukatiboa
Adimen emozionala
Trebetasun sozialak
Jarrera arazoak
Lengoaia eta komunikazioa
Fisioterapia

Askatasun etorbidea, 4 DURANGO - Tel.: 946 071 985 / 672 481 370 -
 eilekecentropsicoeducativo@gmail.com - www.eileke.com



Kurutziaga AKademia

Aerografia • Bitxigintza • Marrazkigintza eta pintura • Maketare eta modelismoa

ARTE EDERRAK

Ume eta nagusientzako pintura eta
 marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK

• Astelehenetik ostiralera
 • Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27

*Informa zaitz
 konpromiso gabe*

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com



Amaia Sarrionandia, Arrate Arana eta Maia Alberdi.

Telefono mugikorrak erabilera arduratsua egiteko norabidean

Umeak eta gaztetxoak telefono mugikorra erabiltzen hasten dira, eta gurasoek bide hori landu beharra izaten dute, alaba edo semearen bidelagun izanda

10-11 urte bueltako ikasgeletan telefono mugikorra agertzen hasten da, eta ikasleak aldaketa horretara egokitzen joaten dira. Zelan eman erabilera arduratsua? Gai horren inguruan tailerrak ematen dituzte ikastetxeetan Amankomunazgoko Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuko teknikariek. Gurasoentzat ere buruhaustea ekar dezake aldaketak. "Garrantzi-

tsuena eurekin berba egitea da, mugikorra eman baino lehenago. Zelan erabili, errespetuz jokatzea, ezezagunak ez onartzea...", azaldu du Arrate Aranak. Amaia Sarrionandiak dio gurasoak erakutsi behar diola bidea umeari, teknologiaz seguruenik gutxiago jakin arren. "Txikia denean zeuk erakusten diozu umeari kalea gurutzatzen, ezta? Bada, mugikorrak berdin. Gero, apur bat libre uzten duzu, baina adi zaude. Eta nagusiagoa denean, bakarrik utzi eta konfiantza duzu berarengan. Bere autonomia hartzen utzi behar diozu", azaldu du Sarrionandiak. Gainera, umeagaz "komunikazio bide bat" zabaltzeko modua ere izan litekeela aipatu du, mugikorraren abantaila modura.

Mugikorraren erabilerarako irizpide edo pausoak ezartzean, gurasoak eredu eman behar duela uste du Aranak. "Gurasoak koherentea izan behar du eta berak ere arauak bete", esan du.

Taldearen presioa

Sarrionandiak esan du guraso askok borroka bizi dutela sasoi horretan, mugikorra emateko goizegi dela uste dutelako. Hala ere, umearen izaeraren arabera gurasoak noiz eman jakingo duela uste du Sarrionandiak. "Noski, ikasgelako presioa ere handia da. Talde batetik kanpo geratzeko norberarentzat gogorra da, eta nerabezaroan oraindik eta gehiago", dio Aranak.

Ikastetxeetan ere badute ardura, eta horregatik eskaintzen dituzte tailerrak, Maia Alberdik kontatzen duenez. "LHko 6. mailan ematen hasi ginen, baina 5.era aurreratu dugu, ikastetxeek eskatu digutelako".

hitz
 liburudenda

artekalea 23, durango
 946 810 776
 info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak



HELDUENTZAT
 ARAMOTZ
 Iñaki Irasizabal
 2018



UME ETA GAZTEENTZAT
 KAR KARRANTXILO
 Txabi Arnal
 2018



MUSIKA
 ZINTZILIK
 Olatz Salvador
 2018

Tailer kulturalak 2018/2019



HELDUENTZAKO IKASTAROAK:
 Pintura / Sukaldaritza / Areto dantzak / Eskulanak /
 Yoga / Mantentze gimnasia / Gimnasia leuna /
 Egur-lanketa / Pilates / Irakur-lagunak / Irakurketa Klubak /
 "Entreletras" / ELT / XL Irakurketa Kluba

UMEENTZAKO IKASTAROAK:
 Azalerako lpuinak / Mintzoan kux-kux / Pintura /
 Jolas Ingelesa

GAZTEENTZAKO IKASTAROAK:
 Paperezko hegoak / Gazteentzako ingelesa

IKASTARO FAMILIARRAK:
 Dantza Aerobikoa (Zumba) /
 Erritmoa eta Perkusioa / Bitxigintza

MINTZA-PRAKTIKA TALDEAK
 Ingelesa, frantsesa eta alemana

MATRIKULA EPEAK:
 Irailaren 17tik 26ra lurretan errolatuak
 Irailaren 24tik 26ra lurretan ez errolatuak

Izena emateko HAZ-en (Bidebarrieta, 5) edo
 haz-sac@iurreta.eus helbidera idatzita.



Ikasturteko gastuaren %35 oraintxe egiten da, irailean.

Eskolako gastua iaz baino %3 karuagoa izango da

Euskal Kontsumitzaileen Alkartek zenbait gomendio eman dizkie ikasleen gurasoei, urtarilekoa baino gogorragoa izan daitekeen aldapari aurre egin ahal izateko

EKONOMIA • MARKEL ONAINDIA

Ikasturte berriak gastu ekonomikoa dakarkie gurasoei. Materiala erostea, arropa, oinetakoak, jantokia, garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak... Seguruenik, eurentzat gogorragoa izango da iraileko aldapa urtarilekoa baino. Aurtengo eskolara buelta iaz baino %3 karuagoa izango dela aurreikusi du Euskal

Gutxi gorabehera, 920 euro kostako zaie eskola publikoetan, 1.680 euro kontzertatueta eta 3.670 euro pribatueta

Gogoratu dute administrazioek bekak edo laguntzak eskaintzen dituztela ikasleen hainbat gasturi aurre egiteko

Kontsumitzaileen Alkartek (EKA), inkestetan oinarrituta. Ikasle bakoitzaren buelta, gutxi gorabehera, 920 euro kostako zaie eskola publikoetan; 1.680 euro kontzertatueta eta 3.670 euro pribatueta. Ikasturteko inbertsioaren %35 egin ohi da irailean, batez ere liburu eta abarrei dagokiena. Lehen Hezkuntzan 350 euro, Bigarren Hezkuntzan 480 euro, eta Batxilergoan 515 euro.

Zenbait aholku

EKA erakundetik zenbait aholku zabaldu dituzte. Gogoratu dute administrazioek bekak edo laguntzak eskaintzen dituztela ikasleen hainbat gasturi aurre egiteko, eta horietaz informatzeko gomendioa eman dute. Prezio-kalitate harremanari erreparatzea eta marka ospetsuen erakargarritasuna saihestea aholkatu dute; baita herri eta auzoetako dendetan ibiltzea ere. Gastuak ikasturtean zehar banatzea komeni dela diote, eta liburuak erosteko zailtasunak edukiz gero, truke-programetan parte hartzea.

AZKENEAN, OXFORDEKO INGELES AZTERKETA BAT EGIN AHAL IZANGO DUZU ZORNOTZAN!

HIZKUNTZAK IKASI NAHI DITUZU?
INGELES • FRANTZESA • EUSKARA • ITALIERA • PORTUGESA
GAZTELANIA • ALEMANA • TXINERA

Gainera, nobedade gehiago ere baditugu:
Laguntza orokorreko klaseak, lehen mailako zein bigarren mailako irakaskuntzarako.
Hizkuntzak txikitik ikasteko aukera. 3 urtetik gorako umeentzat.

Anboto kalea, 3 • Zornotza • 48340 • Tel./Fax: 946 732 036
www.aimsandgoals.com

AZTERKETA OFIZIALAK

INGELES, FRANTZESA ETA ALEMANA

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Matrikula zabalik!

Azoka kalea 1-1 ezk. (Zinema eta plazaren artean) DURANGO
Tel.: 946 819 088 • www.azokaidiomas.com

Kultura baten ibilbide orria bere hizkuntza da.

Hizkuntzak esaten digu bere hiltunen jatorria eta etorkizuna.

Academia de inglés
675 48 68 05
Askatasun Etorbidea 29

Eta zuk, ingelesa beharko duzu joango zaren tokian?

Ingelesa - Frantsesa / Jatorrizko irakasle tituludunak
Maila guztiak / 3 urtetik aurrera
Ingeles ikastaroak atzerrian.

Kalebarria, 44-46 behe DURANGO
Komentukale, 18 behe DURANGO

Tel.: 94 620 36 68 - info@bvrsacademy.com

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA

Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANO, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA

Kalebarria, 1-1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

TALDE BAKOITZEAN 6 IKASLE GEHIENEZ
CAMBRIDGEKO AZTERKETA OFIZIALETARAKO FORMAZIOA

Zubibitarte 11, Behea ezkerre
Matiena, Abadiño
www.redhilllanguage.com
redhill.language.school@gmail.com
Redhill Language School

124 pertsonak parte hartu dute Dendak Bairen Fashion Gaueko castingean

Parte-hartzaileetako asko ume zein gazteak izan direla azaldu dute merkatarien elkarteko arduradunek



SF40 agentziako adituak izan dira hautapen proba egin dutenak.

MODA • JONE GUENETXEA

Fashion Gaueko castingean parte hartzeko hautagaiek ilara luzea sortu zuten, joan zen asteko eguean, Durangoko Berbagunean. Urduritasuna izan zen nagusi proba egin gura zuten neska-mutilen artean. Guztira, 124 pertsonak parte hartu zuten. Ekimenaren arduradunek azaldu dutenez, iaz 70 pertsona bertaratu ziren, eta, beraz, "pozik" daude parte-hartzeagaz. Hala ere, gehienak ume eta gazteak izan zirela aitortu dute. "Nagusien presentzia falta sumatzen dugu", diote Dendak Baiko kideek.

Irailaren 28ko desfilean Durangoko saltokiek 2018ko udazken-negu denboraldirako proposamenak aurkeztuko dituzte, eta pasarela horretan parte hartzea zuten jokoan castingera aurkeztutakoek.

SF40 modelo agentziako adituak izan ziren hautapen proba egiteko arduradunak. Eurek aukeratu dituzte desfileatuko duten pertsonak. Kasu askotan, umeak gurasoekin joan ziren, eta biek egin zuten castinga. Irudiak grabatzeaz gain, eurei buruz azalpen labur bat emateko ere eskatu zieten hautagaiei. Egun batez modelo izan eta pasarela batera igotzeko 25 lagun aukeratu zituzten.

Desfile "herrikoa"

Modelo profesionala izan nahi duzu egun batez? leloagaz, ekimena herritar guztiei zuzenduta dagoela azaldu dute Dendak Bai merkatari elkarteko kideek, "gizonak eta emakumeak, umeak, adin eta neurri guztietakoak". Ekintzaren helburua herriko merkataritzari ikusgarritasuna ematea da, herritarrek ekimen horren partaide eginez.



Ilara luzeak sortu ziren, joan zen eguean, castingean parte hartzeko.



Agentziako kideek jarraibideak eman zizkieten parte-hartzaileei.



**KURTSO BERRIRAKO
ESKAINZA BEREZIAK**

- Testu liburuak
- Amantalak
- ...

urki
Prensa eta papertegia

Bixente Kapanaga, 10
Iurreta
94 402 31 05
684 14 28 47





Arrike
Liburudenda



Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403



IK Iurreta
kopistegia

**IMPRESIO DIGITALA
DISEÑO GRAFICOA**

**ESKOLA MATERIALEAN
ESKAINZA ZABALA**

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
T: 946 811 070 · info@iurretakopi.com



Udazken-neguko arropak ez diote koloreari zertan uko egin. Egia da neguan kolore leunagoak erabiltzen ditugula, baina beti dago kolorea tartekatzeke aukeraren bat



Arropa eroso ikasturtea topera hasteko

Eskolara bueltagaz, umeak zein gazteak normaltasunera itzuli dira. Txikitxoek egokitzen fasean daude, eta nagusiagoek bete-betean ekin diote ikasturte berriari. Kurtsua behar den bezala hasteko eta esperientzia berri honek gozatzeko, arropa eta oinetako erosoak baliagarriak dira. Udako azken egunak joan eta gero, denboraldi berriak hainbat proposamen interesgarri dakartza udazkeneko freskotasunari aurre egiteko.

Boboliren udazkeneko
bilduma berria
ezagutu egizu

Astarloa 15 - Durango
0 hiletik 16. tailara arte
Tel. 94 623 26 32

www.boboli.es

**Eskola eta
bulego
materiala**

Eskuratu zure bezero
txartela eta baliatu
zaitez eskaintzen
ditugun deskontuetaz!

Artekalea Kalea, 9, 48200 Durango, Bizkaia - Tel.:946 20 14 13
www.alfil.be - alfil.durango@gmail.com

Kaixo



EROSKI

zurekin



Eskola

VISTO 13 BUENO
Neska-mutikoentzako
txalekoa

PVP

15,99€

bazkide bazara

10,99€*

5€ →



VISTO 13 BUENO
Elastiko liso edo estanpatua

6,99
€/ud

bazkide bazara

4,99*
€/ud

2€/ud →



08/23tik 09/19ra

Finantzatu zure erosketak
DOHAINIK gehienez 10 hilabetean* %

0

ko
UTB



* Kontsultatu baldintzak 2. orrialdean



**Igor Iglesias
Moreno**

Soinu teknikaria
Durango | 1989

“Berri Txarrakegaz 5.000 lagunen aurrean egin dut lan; hori dut gustukoen, jende askok entzutea nire lana”

Afizioa ofizio bihurtu du Igor Iglesiasek ekinaren ekinaz. San Agustin kulturgunean eman zituen lehenbiziko pausoak egun Platerueneko soinu teknikaria denak. Uda garaian, puntako taldeekin ibili ohi da kontzertuz kontzertu

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

**Zuzeneko musika pasio duela igar-
tzen zaio Igor Iglesiari, uda osoa
beharrean igarota ere lan egiteko
gogoz baitago soinu teknikaria.
Momentu profesional gozoan da-
go, gainera; azken asteetan maila
handiko artistei jarri die soinua.
Berri Txarrakegaz egon da Galizian,
Shinovagaz Cadizen eta Valentzian,
eta, Kometagaz Sonorama jaialdian
(Gaztela eta Leon), besteak beste.
Governorsen teknikaria ere bada.**

Zelan joan da uda?

Kontzertuak egin ditut, batez ere. Gure beharrean uda goi-denboral-
dia da. Kontzertu asko egin ditut
aurten, eta horrela jarraitzea espe-
ro dut! Gogoz egoten naiz urtero
kontzertuak egiteko. Lan karga as-

koko egunak ere badaude, Duran-
goko Azokakoak, esaterako. Bost
egun jarraian kontzertuak egiten
egoten naiz, baina amaitu eta egun
bira berriro gura izaten dut lan kar-
ga hori edukitzea (barrez).

**Alde handia dago festibal batean
aritzetik aretoetan aritzera?**

Bai, sekulako aldea dago. Gaur
egun, teknologiarik esker, aurreko
kontzertuetako parametroak USB

“

**Soinu probarik egin
barik kontzertu bat
ematea begiak itxita
gidatzea bezalakoa
da; egin daiteke,
halere”**

■

batean eraman ditzakezu, baina
bestelako aldagaiak kontuan hartu
behar dira beti: akustika, ekipoa,
soinu proba egiten duzun edo ez...
Soinu probarik egin barik kontzer-
tu bat ematea, begiak itxita dituzu-
la gidatzea bezalakoa da, egin dai-
tekeen arren. Zorionez, nik udan
ekipo ezberdin askogaz egiten dut
lan, eta horrek asko laguntzen du.

**Zein da zuri gehien gustatzen zaizun
arloa?**

Kontzertuak, batez ere. Rock kon-
tzertuak egiteko deitzen didate
askotan; hala ere, akustikoetan
ere gozatzen dut. Honek badu bere
alde txarra baita ere. Beharrean ez
nagoela, kontzertuetan ez dut gura
beste disfrutatzen, ez dudalako
deskonektatzen, edo etxean ez dut
musika askorik entzuten, belarriek
atsedena ere eman behar zaielako.

**Berri Txarrak, Shinova, Gatibu...
talde handiekin lan egiten duzunean,
presioak eragiten dizu?**

Ni lasai joaten naiz. Badakit ni-
re lana ondo egingo dudala, edo,
gutxienez, nire onena emango
dudala. Horrelako taldeekin lan
egitea erraza izan ohi da, gainera,
baldintzarik onenetan egiten de-
lako. Nire ustez, garrantzitsuena
norberak bere buruari ezartzen
dion helmuga da; zure buruari bost
bat eskatzen badiozu, aurreratu
egingo zaituzte. Ni oso exigentea
naiz nire buruagaz, eta horrek
motibatzen nau. Kontzertu txar bat

egiten badut, izorratuta noa etxera.
Beharbada jarrera masokista izan
daiteke, baina soinu ona badago,
disfrutatu egiten dut.

Urteekin finduko zenuen hori.

2011. urtean amaitu nituen ikas-
ketak, eta ordurako San Agustin
kulturgunean nenbilen lanean.
Hortik hasi nintzen Plateruenean
ere ordezkapenak egiten. Ni asko fi-
jatzten naiz soinuak, beti. Kontzertu
bat ikusten banago, adi egoten naiz
ea zelakoa den soinua, ea nik nola
egingo nukeen, eta horrela ikasi
egiten da.

**Musikaria izandakoa zara. Eragin
dizu horrek?**

Noski. Batxilergoa amaitu eta ez ne-
kien zer egin. Gitarra jotzean nire
burua grabatzen nuen, eta horrela
irten zen moduloa ikasteko auke-
ra. Gero, Madrilera joan nintzen
18 hilabeteko master bat egitera,
eta han harrituta geratu nintzen.
Klasean gozatu egiten nuen. Klasea
amaitzean, ikasitakoa praktikan
jarri ahal izatea gura nuen. Eta,
azkenean, zazpi urte daramatzat
beharrean.

“

**Edonora joateko,
zapia buruan, haginak
estutu eta aurrera!
Horrela behar du,
zartakoa ez hartzeko”**

■

Zer gustatuko litzazuke egitea?

Mila aldiz egin diot galdera bera
nire buruari, baina ez dut inoiz
erantzuten jakin. Ez dakit zein
izango litzatekeen hurrengo pau-
soa. Zortea izan dut, aukerak iritsi
zaizkidanean hartu ahal izan ditu-
dalako. Iaz Hatortxu Rock jaialdian
egon nintzen, Gatibugaz, 30.000-
40.000 lagunen aurrean, eta aurten
Berri Txarrakegaz 5.000 lagunen
aurrean egin dut lan udan. Hori da
gehlen gustatzen zaidana, gero eta
jende gehiagok entzutea nire lana,
eta gero eta ekipo indartsuagoekin
egitea lana. Ni gustura nago maila
honetan lan egiten, eta zerbait ho-
bea badator, ongi etorria izango da.
Hala ere, lan baldintzak ez dira beti
egokiak. Urteek aurrera egin ahala,
lan baldintza kaskarren kontua
amaituko zela uste nuen, baina noi-
zean behin halakoak tokatzen dira.
Edonora joanda ere, zapia buruan
jarri, haginak estutu eta zezenari
aurre egin behar! Komeni horrela
izatea, erlaxatzerakoan baitator zar-
takoa. Zaleek ordaindu egiten dute
kontzertu bat ikustearren, eta lan
ona egitea da teknikarion ardura.
Ahalik eta ondoen egitea.

Taldeak mailak ere eragingo du?

Gaur egun taldeek oso maila ona
dute, teknikoki zein material alde-
tik. Profesionalizatu egin da guztia.
Taldea askok euren teknikariak
dituzte, eurek gura duten soinua
lortzeko. Adibidez, Plateruenera da-
tozen hamar taldetik zortzik euren
teknikariak ekartzen dituzte.

Be Festival jaialdi entzutetsuko alerik onenak San Agustinerara datoz

Hogeita bat emanaldi antolatu ditu kulturaguneak urtea amaitu bitartean ikusteko



Aurtengo Be Festivalaren irabazlea. Tom Cassini performista, prestidigitadorea eta ilusionista da.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Antzezpen molde berri eta garaiki-deen jaialdia da Be Festival. Urtero, Birmingham (Erresuma Batua) hirian egiten den festibaleko lanik aipagarrienekin bira egiten dute European zehar. "Euskal Herrian geldialdi bi egin ohi dituzte, eta horietako bat Durangon izango da", azaldu du Arantza Arrazola kulturaguneko teknikariak. Horrez gainera, beste hogei emanaldi ikusi

Ander Lipusek zuzenduriko 'Zazpi Senideko' antzezlanaren urrian eskainiko dute

'Rezagados' obraren berrikuspenaren estreinaldia San Agustinen izango da

ahalko dira urtea amaitu bitartean: antzerkia, magia, musika... Besteak beste, Ander Lipusek zuzenduriko *Zazpi Senideko*, *Rezagados* obraren berrikusketa (hau, estreinaldian) antzezlanak, 5 magia ikuskizun nazioarteko magoekin eta *Maluta* Durangoko gabonetako zirkua gozatu ahalko dira San Agustinen datozen asteetan.

Geure Durangaldea

Josune Aranguren Zatika
Filosofoa



Bertoko (eta bertako)

Bai berba potoloa. Harrotasuna eta beste pizgarri batzuk jaioarazten dituen gure barneetan. Hauxe ere esaten zuen idatzian: *herrian hamaika haur parke egon arren, ikastetxeetakoak eta Tabirako igerilekuetakoak ez daude beti erabiltzeko modeko ia 4.000 haur horiek gainerako zortzi parkeetan banatu behuan. Beraz, 12 urte arteko ia 4.000 haur horiek gainerako zortzi parkeetan banatu behar dira. Horri gehitu behar zaio parkeetako batzuk ez daudela ondo. Uda honetako gertakari bi: Aurrena, jatetxe batean menua bertako hizkuntzan eskatutakoan entzundakoa: "Beste hizkuntza batean ere nahi duzu? Hirugarrena litza-teke!". Bigarren gertakaria, oroigarri merke-merkea erostean, saltzaileak egindako opari-eskaintza: "Platertxoko hitza bertoko hizkera dugu, galtzen ari da baina hitz egingo dizuet". Zein gertakari da Britainiako, zein Euskal Herriko? Jolastu hipotesi biek, erakusten duten egoerekin eta iragartzen dituzten ondorioekin. Bertokoa: harrotasuna? Estitxu Izagirrek Argian publikatutako "200.000 turista Gaztelugatzen harrotzekoa eta 3.000 migrari EAEn larritzekoa?" gogoetan irakurritako batzuk hemen: biotipo, babestu, hondakin, ... Turista kopuruak eta ez beste ezerk ezartzen du udaren arrakasta erakundeen balorazioan. Bitartean, herritarrek, auzolanean, plastikozko ontziak jasotzen. Eta azken lerroak Donostiako jaietako bertso saioan Maialen Lujanbio irakasle jakintsuak botatakoak: "Hiri estandar bat bihurtzea / hartua dute eredu. Guk daukaguna erakustez, / jakina, harro geunden gu. / Ta lehen ginena ez garenean, / zer erakutsiko degu? Sasoiz gaude? Badakigu zer den bertokoa?"*

Arin-arin dantza taldearen 50. urtemuga ospatuko dute asteburuan, Berna auzoan

Dantza taldearen urteurrena ospatzeko, egitarau zabala antolatu dute Zornotzako Berna auzoko kideek.

DANTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mende erdi igaro da Zornotzako Berna auzoan dantza taldea sortu zutenetik. Aurten urteurren hori ospatzeko, egun biko egitaraua antolatu dute Arin-Arin dantza taldeko kideek.

Gaur, 20:00etan, entsegu orokorra egingo dute eta, ostean, luntxa egongo da. 22:00etan, Tio Teronen

Semeak taldeak *Freshcool* ikuskizuna eskainiko du.

Zapatuan, 11:30ean, Arin-Arin dantza taldeko kideek argazkiak aterako dituzte taldeka, eta, horren ostean, kalejira egingo dute auzotik zehar. 12:30ean, dantza saioa egongo da eta, 15:00etan, bazkaria. 17:30ean, Obaneuke taldeak erromeria eskainiko du.



Arin-arin dantza taldeko kideak.

www.plateruena.eus

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

EL PUTU BEN
Kontzertua
Irailak 15 · 23:00etan
ElputoBen ★ El coco y el cangrejo

JAKINDURIEK MUNDUE ERREKO DAU
Bertso saioa
Irailak 21 · 19:00etan
E=mc², Nik Nobel b, Poto!

LUR
Xake Produzioak
Haurrentzako antzerkia

Irailak 23, domeka
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO URBAL

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus



'Euria' ikuskizuna aurkeztuko dute Markeliñeko kideek. **LUIS ANTONIO BARAJAS**

'Euria' nazioartean ezagutzera emango du Markeliñek

Zornotzako Markeliñe antzerki taldeak Santoseko (Brasil) jaialdian emango dio hasiera nazioarteko birari

ANTZERKIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zornotzako Markeliñe Antzerki taldeak bira bat antolatu du *Euria* ikuskizuna nazioartean ezagutzera emateko asmoz. Taldeak Santosera (Brasil) bidaiatu du asteon, eta han Mirada 2018 antzerki jaialdian aurkeztuko dute euren lana.

2017an, *Euria* antzezlanak Feten saria eskuratu zuen, eta, sortzaileen esanetan, adin guztietarako aproposa da ikuskizuna.

Zerbait maite denean eta hori galdutakoan gertatzen eta sentitzen denari buruz hitz egiten dute antzezleek ikuskizunean. Gizakiak galera horiek gainditzeko duen gaitasuna azaltzen dute.

Urrian, Bukaresten

Bestalde, lan beragaz urrian Bukaresten egiten den 10. 100, 1000 Stories jaialdian parte hartuko dute Markeliñekoek.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatzailer baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje
eta obra osteko garbiketak

Goietia, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIO barnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



III. BHCK Fest 2018

KONTZERTUAK
BERRIZ :: Irailak 15

Hardcore musikaren eguna Hiltegixe gaztetxean

Berriz Hardcore Krew elkar-
teak antolatuta, kontzertu sorta
egongo da gaztetxean bihar,
18:00etan.

Hirugarren edizioa egingo du
BHCK Fest jaialdiak, eta zortzi tal-
de igoko dira eszenatokira: Worth
It eta Stronger Together berrizta-



Everesteko behe kanpalekurako irteera, Alpinoren eskutik

MENDIA | Alpino Tabira taldeak
Everesteko behe kanpalekura
irteera antolatu du azarorako.
Espedizioa azaroaren 3an hasiko
da eta 19 egun iraungo du. Joan
gura duten bazkideek 1.275 euro

ordaindu beharko dituzte eta
bazkide ez direnek 1.675 euro.
Ondorengoak sartzen dira
prezioan: aireportu eta hotele-
tara lekualdatzeak, Katmandun
ostatua gosari eta guzti, Kat-

mandu-Lukla-Katmandu hegaldia,
etxeko hegaldietako aireko
tasak, azpiegitura eta mantenu
osoa trekkingak iraun bitartean,
ostatua *tea houses*-etan trekkin-
gak irauten duen bitartean, trek-
kinga egiteko baimena eta sa-
rrera Parke Nazionaletara, TIMS
txartela, ingelesez eta gaztela-
niaz hitz egiten duten gidariak,
garraiolari bat bi pertsonako eta
sorospen aseguruak.

Irailaren 14an

BERRIZ antzerkia
‘Babo Royal’ antzezlan
Ganso & Ciaren eskutik,
19:00etan, Elizondo
plazan.


ABADIÑO jaiak
‘Aitte Kurutzeko jaiak’.
Meza, eta ostean luntxa,
11:30ean; **Ugasio**
txapelketa (kamisoi edo
pijama jantzita),
18:30ean, gaztetxean;
parrillada, 20:00etan;
erromeria Lotxo
taldeagaz, 20:30ean;
umeen patata dantza;
ostean, txokolatea
banatuko da, 22:00etan;
helduen patata dantza,
00:00etan, **kulero eta**
galtzontzillo lasterketa,
02:00etan.

Irailaren 15ean

BERRIZ ekimena
‘Arratsaldea familia
giroan’. Txirrista
puzgarria,
16:30-19:30 bitartean;
mokadua jatea,
19:30ean; **familiarteko**
karaokea (saria
irabazlearentzat,
eta opariak parte-
hartzaileentzat),
20:00-22:00 bitartean,
Eskolako patio berrian.

OTXANDIO musika
‘Euskal Herrian
egindako bi organo
berriren aurkezpena eta
kontzertua’. Organoen
aurkezpena,
19:00etan; **Ana Belen**
Garcia eta Ana Aguado
organisten kontzertua,
20:00etan.

DURANGO musika
‘Anttonio’s Sound
System’. Dj Bekosue eta
Barraskiller Seлектah,
16:00etan, Gure Toki
Anttonio’s tabernan.



rrak, Issuna ermuarrak, Ezkerraldetik datorren Sasha Green taldea, HOME HxC gasteiztarak, Norkzer gipuzkoarrak, Tierra Hostil galiziarrek eta Blame madrildarrak. Sarrera bost euro kobratuko dute.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

II. Asto Trail lasterketako inskripzioa martxan dago Garain

KIROLA | Irailaren 23an Garaiko II. Asto Trail lasterketa jokatu da, eta triatloi taldeko antolatzaileek martxan ipini dute inskripzioa. www.garaitt.com webgunean eman daiteke izena; eguna baino lehen apuntatzen denak 10 euro ordainduko ditu, eta egunean bertan agertzen denak, 13.

09:00etan hasiko da proba, eta 29 kilometroko luzera edukiko du. Irabazleari 150 euro eta txapela emango dizkiote.



ABADIÑO jaiak
‘Aitte Kurutzeko jaiak’.
Acroyoga ikastaroa (arropa eroso eraman), eta ostean ikuskizuna, 17:30ean; **tortilla txapelketa,** 20:30ean.

ELORRIO musika
Coral San Martin de Sotondio (Asturias) taldearen kontzertua, 20:00etan, Santa Anako kaperan.

DURANGO musika
El Puto Ben eta El Coco y el Cangrejo taldeen kontzertua, 23:00etan, Plateruenean.

DURANGO musika
Organo eta oboe kontzertua 20:00etan, San Frantziskon

Irailaren 16an

ELORRIO jaiak
‘Santa Eufemia’ jaiak, auzokideek antolatuta, eguerdian, Araunetan.

ABADIÑO jaiak
‘Aitte Kurutzeko jaiak’. Mozorro Eguna, **‘Le Tour de France Abadiñotik pasatuko da Tourra’.** Bizikleta martxa girotua, 11:00etan; **triki poteoa,** 12:30ean; **bazkaria,** 14:30ean, **musika dantzagarria** Joxeanen eskutik, 17:30ean.

ELORRIO deialdia
‘Besaide, oroitzapen eguna’. Elorrioko plazatik igoera, **Memaia**tik, 08:30ean; **txistulariak eta txalaparta,** 10:30ean; **oroimen ekitaldi zibila,** 11:00etan; **Euskal Mendizale Federazioko presidentearen berbaldia,** 11:30ean; **dantzariak eta txistulariak,** 12:00etan.

ELORRIO emanaldia
Maria Torrellasen **‘Mujeres en Revolución’** dokumentalaren emanaldia; **ostean, solasaldia egongo da,** 19:30ean, gaztetxean.

Irailaren 18an

DURANGO musika
Jared James Nicholsek kontzertua eta solasaldia, 18:00etan, Txirula Musiken.

Irailaren 21ean

DURANGO bertsolaritza
‘Jakinduriek mundue erreko dau’ zientzia eta bertsoa uztartzen dituen saioa, 19:00etan, Plateruenean.

ELORRIO antzerkia
‘Oxido’ antzezlan, 20:30ean, Arriolan.

ZALDIBAR bertsolaritza
Maddalen Arzallus eta Jon Maiaren bertso saioa, 21:00ean, Goierri auzo-etxean.

Irailaren 23an

ELORRIO antzerkia
‘MiraMiro’ haurrentzako dantzak, 17:00etan, Arriolan.

OTXANDIO bisita gidatua
‘Bittor Kapanaga euskararen jatorria, euskal sena ekintzailea’ doako bisita gidatua, 11:00etan, udaletxe aurretik.

DURANGO antzerkia
‘Lur’, Xake produkzioaren antzezlan, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Irailean eta urrian

DURANGO erakusketa
‘Kingfisher’ erakusketa Unai Zocoren lanekin, 17:00etan, Arriolan.



Predator
Durangoko Zugazan

Zine- ma

:: Durango ZUGAZA

• **Book Club**

barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 19:30/22:30
domeka **16:** 19:15/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00

• **Predator**

barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 17:00/19:30/22:30
domeka **16:** 17:00/19:15/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00

• **La Gaviota**

barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 19:30/22:30
domeka **16:** 19:15/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00

• **Teen Titans Go!**

zapatua **15:** 17:00
domeka **16:** 17:00

• **Al aire patos!**

zapatua **15:** 17:00
domeka **16:** 17:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Yucatán**

zapatua **15:** 22:00
domeka **16:** 20:00
astelehena **17:** 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Alpha**

barikua **14:** 20:15
zapatua **15:** 19:30/22:00
domeka **16:** 20:00
astelehena **17:** 20:15



Iraia Garcia Etxebarria
Atleta
Zornotza | 1982

“Orain bizitzen nabilenak atletismoa beti gura izan dudan moduan uzteko aukera eskaintzen dit”

Iraia Garciak (Zornotza, 1982) eliteko atletismoa utziko du. Txapeldun handi batek merezi duen moduan amaituko du, gainera: munduko txapelketan zilarrezko domina irabazita

txapelketan, zilarrezko domina jantzi zuen 2.000 metroko oztopodun proban, master kategorian. Asteburuan bigarren hitzordu bat du toki berean, 1.500 metroko probagaz.

Munduko azpitxapeldun! Espero zenuen?

Norbere aukerak aztertzeke, bes-teen markei begiratu beharra dago. Horrek esaten dizu errealtatea zein den. Final horretan marka handiko atletak zeuden, olinpi-koak izandakoak. Nik astean zehar beste ogibide bat dut eta atletismoa hobya da. Hori ikusita, haxe esaten nion neure buruari: “Lau- garren postua lortzeko borrokatu-ko naiz, baina niri irabazi gura didanak sufritu egin beharko du”. Eta begira, azkenean, bigarren. Pozarren nago.

Espero baino hobeto zeunden?

Lasterketa zoragarria izan zen. Lehenengo kilometroan zazpi-zor- tzi joan ginen taldean, eta elkarre- gaz joatea arriskutsua da oztopoak gainditzekoan. Norbaitek estro-

pezu egiten badu, norbera lurrera joateko arriskua dago. Esaterako, Kenyako atleta baten jokabidea oso arriskutsua iruditu zitzaidan. Errekatik irtetea, Ana Llorensi bultzada bat eman zion eta, horren ondorioz, Llorensek ni bultzatu ninduen. Ia pistatik irten nintzen. Hainbeste denboran entrenatzen ibili horrelako kontu bategatik ia kanpoan geratzeko! Lehenengo kilometroa amaitu aurretik tal- dea banatu egin zen eta erosoago nengoen. Itzuli bi geratzen ziren. Hirugarren nindoan eta hain ondo nengoela ikusita, edozer izan zite- keen posible. “Nire lehia aurrean dago”, pentsatu nuen. Bigarren jarri eta erritmoa arindu nuen. Eva Arias liderrak ere erritmoa bizitu zuen. Goi mailako kirolaria

“

Joan zen asteburuko lasterketan pentsatzen dudak bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait”

—

da. Baina berarengandik segundo bira bakarrik geratzea... Itzela izan zen. Lasterketan pentsatzen dudak bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait!

Gainera, Euskadiko errekor berria da distantzia eta maila horretan.

Orain urtebete helburu bi nituen: munduko txapelketan 2.000 me- troko oztopodun proban parte hartzea eta 6.55eko denbora hobe- tzea. Denbora horretan zegoen Es- painiako errekorra. Azken hilean, urduritasunagatik edo, marka erabat ahaztu zitzaidan. Lasterketa amaitu zenean entrenatzaileak haxe esan zidan: “Iraia, marka hobetu duzu!”. Ezin nuen sinetsi. Jakina, irabazleak ere marka ondu zuen, eta orain berea da denbora- rik onena. Biok hobetu genuen. Baina maila horretan Euskadiko errekor berria neurea da.

Asteburu honetan 1.500 metrotan parte hartuko duzu. Zer helburu di- tuzu?

Zapatuan finalerdiak dira eta do- mekan finala. Denborei begira- tuta, hirugarren edo laugarren tokian gera ninteko. Horrela begi- ratuta, aukera gehiago ditut 1.500 metrotan 2.000 metrotan nituenak baino. Ikusi egin behar. Ez dakit zer gertatuko den. Motibazio itzela- gaz noala dakit bakarrik.

2.000 metroko proba itzulita, uste- kabeko domina izanagatik, munduko txapelketan lasterketa hori lehiatzea aspalditik buruan zenerabilen helbu- rua da, ezta?

Bai, iaztik. Begira, nire ingurukoek badakite. Iaz atletismoa uzteko asmoa nuen. Baina master mailara igarotzera nindoan, eta munduko txapelketa estatuan zela jakin nuen, Malagan. Nire burua anima- tu nuen. Master mailatik igarota, kategoria denetan ibiliko nintzen azkeneko. Ziklo bat gorenean egonda ixtea izango zen.

Beraz, atletismoa utziko duzu?

Arrazoi bategatik edo besteagatik, iaz motibazioa ez zen berdina izan. Baina, esandako moduan, gero motibazio berri bat aurkitu nuen. Egun batetik bestera ikuspegia al- datu nuen. Baina orain uzteko une aproposa dela uste dut.

Egunotan bizitzen ari zaren esperien- tzia ona dela-eta, badago aukerarik atletismoa uzteko erabakia atzera- tzeke?

Bizitzen nabilenak atletismoa beti gura izan dudan moduan uzteko aukera eskaintzen dit. Maila go- renean utziko dut. Zer gehiago es- katu dezaket? Ez nuen atletismoa utzi gura lesio bategatik, baten bategaz haserretu naizelako edo antzerako kontuengatik. Begira, iaz utzi banu minez utziko nuen. Etapa bat itxi ez izanaren sentsazio garratza geratuko zitzaidan. Urte askoan hainbeste eskaini didan kirola modu horretara uzteak pena emango zidan. Orain kontrakoa gertatzen da. Ate nagusitik irtenda utzi dezaket.

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

"Uzteko une aproposa dela uste dut". Beste munduko ezer ez balitz bezala bota du, blaust, elkarrizketaren er- dian. Baina jakinarazpen esangura- tsua da, txapeldun handi batek eliteko atletismoari agur esango diola iragarri duelako. Erretiroa hartzea une konpli-

katua izaten da kirolari batentzat. De- nen ametsa aho zapore onagaz uztea den arren, beti ez da horrela izaten. Zorionez, ez da Iraia Garciaren kasua. Gura duen unean eta gura duen mo- duan utziko du: onenekin dabilela eta dominen borrokan. Joan zen astebu- ruan, Malagan lehiatutako munduko

Tor des Geants proba irabazi du Trigüerosek, iaz egindako denbora 10 ordutan jaitsita

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Non du sabaia Silvia Trigüerosek? Urterik urtera bere markak haust- en eta palmarsa loditzen jarrai- tzen du. Tor des Geants 330 kilome- troko lasterketan lortu du orain- goan balentria: irabazi egin du lasterketa eta, hori gutxi balitz, 10 ordutan jaitsi du iazko bere marka.

Iaz ia 98 ordu behar izan zituen lasterketa amaitzeko. Esana zuen aurtengo helburua 90 ordutik jais- tea zela, eta bai lortu ere: 87 ordu 50 minutu eta 31 segundotan geratu

Lo faltari eta tripetako arazoei aurre egin behar izan zien, besteak beste, korrikalari abadiñarrak

zuen kronometroa. Korrikalarien alderdi fisikoa zein mentala muga- mugara eramaten dituen lasterketa da Tor des Geants. Domeka eguer- dian abiatu eta eguen goizaldean helmugaratu arte ez zuen behar den moduan atsedean hartzeko mo-

durik izan Trigüerosek. "Indartsu sentitu naiz; azken txanpan dena eman dut", adierazi du Trigüero- sek probaren ostean. Lo faltari eta tripetako arazoei aurre egin behar izan zien, besteak beste, korrika- lari abadiñarrak. Hala ere, Italiako paraje gorabeheratsuetan lehia- tutako probako zati handi batean hamar onenen artean kokatuta ibili zen. Azkenean, emakumeetan lehenengo eta sailkapen nagusian hamabigarren tokian amaitu zuen korrikalari abadiñarrak.



Silvia Trigüeros Italiako proban.

“Ultra trail bat egiterako orduan, norbere burua ondo ezagutzea da garrantzitsuena”

Bariku goizean hasi eta domekara bitartean, Bocineros-Deiadar Xtreme lasterketako korrikalariak Durangaldetik igaroko dira; tartean Iker Belar Gomez de Segura

KORRIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Gaur hasi eta domekan amaituko da Bocineros-Deiadar Xtreme Durangaldetik igaroko den ultra trail distantziako (200 kilometro) lasterketa. Bertan izango da Iker Belar durangarra. Aurrenekoak zapatuan 7:15 inguruan pasatuko dira Urkiolatik, 8:45 aldera Gerediagako anoa postutik eta 10:30erako Oizen egotea aurreikusten da. Korrikalariek 56 orduko denbora-muga izango dute.

Bocineros-Deiadar Xtreme 200 kilometroko probari ekingo diozu gaur. Nola zaude?

Ondo nago, baina apur bat urduri, egia esan.

Zein da zure helburua?

Nire helburua proba amaitzea da, eta, posible den heinean, kilometro horietan disfrutatzea. Nahiago dut mantsoago joan eta paisaia eta momentuagaz gozatu, itota joan eta arinago amaitu baino.

Zer dela-eta erabaki zenuen lasterketa honetan izena ematea?

Iaz Basque Ultra Trail Seriesetako lau lasterketak egin nituen, eta esperientzia oso polita izan zen. Lasterketa bietan berberak dira antolatzaileak, eta BUTSen korrikalariokin eduki zuten tratu bikaina ikusita izena ematea erabaki nuen. **Lehenengo aldia da 200 kilometroko lasterketa bat egiten duzula?**

Bai. Eginak ditut 170 kilometroko lasterketak, Ehun Milak eta Mont Blancekoa, besteak beste. Baina 200 kilometroko bat egiten dudan



200 kilometroko lasterketan parte hartuko du Belarrek.

lehenengo aldia da. Beste saltotxo bat emateko momentua heldu da.

Probari begira, baduzu beldurrik?

Ultra korrikalari gutxi egingo dugu, 100ek baino gutxiagok. Kilometro eta ordu asko bakarrik egiteak arduratzen nau. Gurago dut astiroago joan eta kilometroak norbaitekin egin, arinago joan eta bakarrik ibili baino.

Ultra trailetan espezialista zarela esan daiteke. Nolako prestakuntza eskatzen dute horrelako proba luzeek?

Ultrak egiteko, aurrez martxa asko egin behar dira. Pertsona batek ezin du egun batetik bestera ultra bat egin. Nik, lehenengo, Hiru Handiak egin nituen, 2008an. Gero Ehun Milak, Mont Blanc...

Lasterketa hauek prestatzeko, astean zehar aprobetxatzen dut korrika egiteko, lanaren ostean. Asteburuetan, berriz, ibilaldi luzeagoak egiten ditut, bai oinez, bai bizikletan. Bizikleta modu ona da erresistentzia lantzeko.

Fisikoa lantzeaz gain, burua prestatzea ere garrantzitsua da.

Ultra bat egiterako orduan, norbere burua ondo ezagutzea da garrantzitsuena. Mentalki ondo prestatuta egon behar izaten dugu. Horrenbeste kilometrotan gorputzak hainbat beherakada izaten ditu, eta horiei eutsi egin behar zaie.

Lasterketek zer ematen dizute zuri?

Lasterketei esker leku paregabeak ikusi eta pertsona izugarriak ezagutzeko aukera izan dut.

Gorka Otaduy protagonista Olazar pilota txapelketako lehenengo jardunaldian

Zaldibarko pilota tornea hasiko dute egunean

PILOTA • J.D.

Datorren egunean Olazar pilota txapelketaren 31. aldia hasiko dute Zaldibarren. Urtero moduan, afizionatu mailako pilotaririk onenetakoak batu ditu.

Durangaldeak ordezkari bakarria izango du: Gorka Otaduy. Lehenengo jardunaldiko protagonistetako bat izango da pilotari berriztarra. Ioritz Arrieta aurrelari hernaniarragaz osatuko du bikotea. Biek Ojuel eta Arratibel izango dituzte aurkari. Partidua 21:30ean hasiko da.

Zaldibarko txapelketak sasoian harrapatu du Otaduy. Irail hasieran Zumaiaiko tornea irabazi zuen Iker Salaberriagaz bikotea

osatuta. Otaduyren bikotekideak, Arrietak, esperientzia handia du afizionatuetan. Esaterako, 2014an Gorrotxategigaz batera irabazi zuen Olazar pilota txapelketa.

Aurtengo aldia 16 bikotek parte hartuko dute binakakoan, eta 16 pilotarik lau t'erdian. Partidurik gehienak eguenero jokatuko dituzte eta final handia abenduaren 31n izango da.

Faborito argi barik

Txapelketak ez du faborito argirik adituen ustez. "Maila antzerakoa duten bikote asko daude. Hamar bat bikote ikusten ditut irabazteko aukerekin", dio Enrike Agirrebeitia antolatzaileetako batek.



Gorka Otaduyk Arrietagaz osatuko du bikotea.

Asteko kirolaria



LUIS POLANCO ALDASORO

Otxandio, aizkolaria

Apurka-apurka, aizkorakadaz aizkorakada, mundu horretan bere lekua egiten dabil Luis Polanco. Joan zen asteburuan Arabako binakako

“Oilar handiak zeuden, baina bagenekien geurea emanda estutu genitzakeela”

Luis Polanco otxandiarak Arabako binakako aizkolari txapelketa irabazi du

aizkolarien txapelketa irabazi zuen Jon Rodriguezegaz batera. Olarizu herrian jokatu zen finala.

Zelan egin zenuten binakako finale-rako bidea?

Binakako txapelketa egun batean erabakitzen da. Bikoteak osatzeko, banakako txapelketako emaitzak hartzen dira kontuan. Hau da, lehenengo mailako txapeldunak bigarren mailan azkenengo geratu

denagaz osatzen du bikotea eta horrela denekin. Ni bigarren mailako txapelketan azpitxapeldun geratu nintzen eta Jon Rodriguez lehenengo mailan hirugarren sailkatu zen. Postu horiengatik osatu dugu bikotea binakakoan.

Finalean zer lan izan zenuten?

60 ontzako enbor bi eta 65 ontzako lau moztu genituen.

Espero zenuten txapeldun geratzea ala sorpresa izan zen?

Oilar handiak zeuden, baina bagenekien geurea emanez gero estutu genitzakeela. Horrela gertatu zen. Geneukan dena eman genuen eta egindako lanagaz gustura geratu ginen. Besteek ere beharbada ez zuten euren egunik onena izango, eta azkenean irabaztea lortu genuen.

Aurrera begira, zer asmo dituzu? Beste txapelketarik baduzu buruan?

Datorren urtean Arabako bigarren mailako txapelketan berriro parte hartu gura nuke. Aurten bigarren geratu naiz eta datorren urtean, esperientzia gehiagogaz, ea txapela ateratzeko kapaz naizen. Horrez gainera, Euskal Herriko hirugarren mailako txapelketa ere badut helburu.

Eta, bitartean?

Entrenatzen jarraituko dut eta, aizu, bitartean apusturen bat ir-tetean bada, ba aurrera. Osterantz, entrenatu eta entrenatu, txapelketetarako ahalik eta sasorik onenean heltzeko.

Apustu bila ere bazabiltza?

Ba, ibili naiz bila, baina, momentuz, ez dago ezer. Ikusiko dugu aurrera begira zer bait sortzen den.

Anboto mendia Sorginen Lasterketan: hirugarren saiakeran baietz ematen du

Eguraldi iragarpena aldatzen ez bada, tontorretik igaroko dira zapatuko proban; badaezpada ibilbide alternatibo bat prestatu dute, Urkiolamendi ingurutik

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

2016tik hona ibilbide berria du Sorginen Lasterketak. Mendiko korrikalariarentzat erakargarriagoa da, tartean gozoki tentagarri bat duelako: Anboto mendia. Baina orain arte inork ere ezin izan du dastatu. Eguraldi txarrak eraginda eta segurtasunaren mesedetan, azken urte bietan Anboto ibilbidetik ateratzeko erabakia hartu behar izan zuten antolatzaileek. Zapatu honetan eguraldiak lagundu egingo duela ematen du, baina iragarpenak une batetik bestera aldatzen direnez, gaur hartuko dute azken erabakia. Hirugarrenean bai ote?

"Anboto igo dadin gogotsu gauden", dio Garazi Sampedro antolatzaileen taldeko kideak. "Igotzen bada, jendeari asko gustatuko zaiola uste dugu. Inguruan ez dago ezaugarri horiek dituen lasterketarik", gehitu du. Badaezpada prest dute ibilbide alternatiboa: Anboto ezin bada, Urkiolamendi igoko dute, probari gogortasuna gehitzeko.

Sorginen Lasterketa 10:00etan hasiko da Axpen (Atxondo), zapa-



Aurten 11. aldia egingo du Sorginen Lasterketak.

tuan. Makatzeta ingurura jaitsi eta handik goranzko bidea hartuko dute, harbidetik. Zabalaundin, edo Anbotorantz edo Urkiolamendirantz hartuko dute parte-hartzaileek. Azkenik, Asuntzatik eta Artolatik itzuliko dira Axpera. Ibilbide nagusiak 18 kilometro ditu eta alternatiboak 20 kilometro.

Internet bidez, barikuan 14:00etan amaiatzen da izena emateko aukera www.kirolprobak.com gunean. Egunean bertan ere eman daiteke izena 23 euroren truke.

Emakumeetan Oihana Kortazar eta Majida Maayouf dira faborito. Maayouf krosetako atleta ezaguna

Gizonetan Aitor Ajuria otxandiarra, Julen Ozaeta eta Asser Alonso atxondarra daude faboritoen artean

da eta azken aldian mendiko lasterketak probatzen ari da. Gizonetan, Aitor Ajuria otxandiarra, Julen Ozaeta eta Asser Alonso atxondarra daude faboritoen artean. Iaz hirugarren amaitu zuen Iñigo Alzola zein Asier Alonso aurkari indartsuak izango dira.

Lasterketaren harira, Asuntze mendi taldeak gaztetxoentzako Sorgin Txiki txangoa antolatu du. 09:30ean Axpetik irtengo dira, Toperantz. Han luncha izango dute.

Adituaren txokoa

Eneritz Iturriaga Mazaga
Txirrindulari ohia



Euskal zaleak onenak Oizen

Joan zen eguaztena egun ahaztezina izango da askorentzat. Han batu ziren euskal zale guztiak, Espainiako Vueltako txirrindulariak animatzen. Denen izenak zekizkiten eta denei aupada goxo eta eder asko eman zizkieten. Zaleak ez ziren azken igoeran bakarrik batu. Getxon hasi eta Oiz puntan bukatu arteko kilometro guztietan, jende ugari ikusi zitekeen errepideko alde bietan, gure Bizkaia maitatean barrena. Txirrindulariei ez zitzairen oharkabea pasatu berotasun hori. Askok idatzi zuten eskerrak emanez.

Lehenengo ordutik, bizikletan, oinez, kotxez, motorrez, jende ilarak pistan gora. Eta behin bide ondoan, denak txirrindularien zain, batez ere, etxekoei begira: Bizkarra, Castroviejo, Fraile... eta gogotik animatu zituzten.

Ume guztiak han zeuden euren izarrak ikusten eta kirol maitatu hau arnasten eta bizitzen. Jai giroa, bazkariak, edariak... eta txirrindulariak eurak ere jai giroko parte, batez ere ezer jokoan ez zuten horiek: zaleen aurrean aurreko gorpila goratuz eta akrobaziak eginez, irribarrez agurtzen, oso jator eta esker onez.

Horrelako harrerarekin profesionalen karrerak behin eta berriz etxetik pasatzea espero dugu, luxu bat delako. Txirrindularitza maite dugun denok desiratzen egoten gara.

Aipamen berezia egin gura diot irabazleari, ia ez zuen indarririk puntara heltzeko, baina bere seme aingerutxoa zerutik zegoen indarra emanez, aitzak irabazteko. Hunkigarria izan zen, eta, aldi berean, gogorra.

Eskerrik asko zaleei, txirrindulariei eta denei, kirol hau hainbeste maitatzearren eta horrela bizitzeagatik. Neure alabak ere berdina jasoko du.

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Zaleek merezi zuten ikuskizuna jaso zuten Oizerako igoeran. Ihesaldiko ziklistek borroka estua mantendu zuten eta faboritoen aldetik erasoak eta kontraerasoak izan ziren.

Den-denak euskal zaleen txaloen artean igo ziren zementuzko pistan gora. Jende asko aurreko egunean joan zen bertara, eta hantxe eman zuten gaua. Hurrengo egunean distiratsu argitu zuen eguna, baina arratsalderantz behelaina sartu zen.

Bizkarrari animoak

Omar Fraile izan zen euskaldunik onena. Txirrindulari santurtziarra eguneko ihesaldian sartu eta faboritoen aurretik helmugaratu

Oizen batutako zaleei merezitako ikuskizuna eskaini zieten txirrindulariek

Mikel Bizkarra mañariarrak zaleen partetik jasotako berotasuna eskertu du. "Eskerrik asko bihotzez denoi. Onenak zarete", adierazi du Euskadi-Murias taldeko txirrindulariak

zen. Ihesaldia hartzeko modurik aurkitu ez zuena Mikel Bizkarra izan zen. Ondorioz, Euskadi Murias taldeko mañariarrak ezin izan zuen etapa garaipena borrokatu. Hala ere, ez ditu berehalakoan ahaztuko Oizen batutako zaleen animoak. Etxeko txirrindulariak igoera osoan zehar sentitu zuen zaleen berotasuna. "Eskerrik asko bihotzez denoi. Onenak zarete. Ikaragarria izan da", adierazi du sare sozialetan bidez.



Jendez bete zen Oiz gaina, eta asko aurreko egunean joan ziren. Maialen Zuazubiskar

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserriarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

 **AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

 **ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

 **Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

 **AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO Bat, bi eta hiru logelako etxeak alokairuan. Hilean **600€**-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO Murueta Torre kalean. Pisu berri-berria, hiru logelakoa, komun bi, sukaldea eskegitokiagaz, egongela, garaje eta trasteroa

DURANGO Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.

IURRETA Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO Montebideo kalean, logela biko pisua, bi komun, eskatza, terraza, garaje eta trasteroa, berria.

DURANGO Hegoalde kalean, izugarrizko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.

BERRIZ Etxebizitza guztiz berritua, 3 logelarekin, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta despentsa. Dotorea.

LEKEITIO 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

DURANGO ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, sukalde amerikarra, egongela, garaje itxia eta terraza ikaragarria.

ATXONDO Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea eskekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA EUBA. Txalet bifamiliari bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO Aldape auzoa. Baserria berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ Bº Murgoitio. Bifamiliari ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.

MENDATA Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

AUKERA

 **3** logela
92 m²

AUKERA: 92m2, erdigunean. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terraza handiarekin. Ganbara eta garaje handia.

145.000€ (Neg)

DURANGO

 **3** logela
2 komun

SAN IGNAZIO: Pisu altua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, eskekitokia, egongela terrazarekin, trastelekua eta garajea

195.000€

ZALDIBAR

 **2** logela
2 komun

ZALDIBAR: ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 bainugela, egongela, trastelekua. Garajea aukeran.

143.000€

DURANGO

 **3** logela
1 komun

ARAMOTZ: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela

95.000€

DURANGO

 **3** logela
1 komun

ANTSO ESTEGIZ: 90m2. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin eta igogailua.

150.000€ (Neg)

DURANGO

 **2** logela

SAN FAUSTO: 2 logela (lehen 3). Sukaldea, jangela, egongela. Ikuspegi ederrak.

90.000€

www.inmoduranguesado.com

DURANGO

 **118** m²

MONTEVIDEO. 118m2, berriztatze. Gaisifikatutako eraikina eta igogailua. Bulego eta kontsultetarako aproposa.

205.000€

MAÑARIA

 **3** logela
2 komun
98 m²

MAÑARIA: 98m2, 3 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea jarrita eta 13m2-ko trastelekua.

195.000€ (Neg)

DURANGO

 **2** logela
1 komun

ANTSO ESTEGIZ: 60m2, egongela, sukaldea jarrita, 2 logela, bainugela, balkoia eta ganbara. Igogailua. C.E.E.E.

190.000€

 **3** logela
85,71 m²

ERRETENTXU: 85,71m2, 3 logela, hall-a, egongela, sukaldea handia jarrita, bainugela, komuna eta balkoia. Igogailua.

183.000€

IURRETA

 **3** logela
1 komun

IURRETA: 68,80m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia. Eguzkitsua.

129.000€

MATIENA

 **3** logela
60,30 m²

MATIENA: 60,30m2. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta beroagailua. (ITEa pasatuta)

110.000€ / NEG.

//DURANGO
ANBROSIO MEABE 3 logela, egongela, sukaldea balkoiagaz, bainugela 2, igogailua, kamarotea eta garaje itxia. **270.000**/E.E.Z=F
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000**/E.E.Z=F
BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300** € / E.E.Z= G
ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **210.000** € / E.E.Z=E
ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000** € / E.E.Z=E
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500** € / E.E.Z=F
KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **175.000**€/E.E.Z=F
LANDAKO ETORBIDEA 2 logela, sukalde-jangela, egongela, 2 bainugela, 2 balkoi, igogailua eta garajea. LEHEN 267.800 € ORAIN **255.000**€/ E.E.Z=E
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ ORAIN **260.000** € / E.E.Z= E
MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugel eta, igogailua. **219.000**€ E.E.Z= F
MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000** € / E.E.Z=E
MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000** € / E.E.Z=E
PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 275.000 €/ ORAIN **260.000** € / E.E.Z=E
SASI KOA 4 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoi itxia, igogailua, garajea eta ganbara. **220.000** € / E.E.Z=G
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **150.000** € / E.E.Z Bidean
ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000** € / E.E.Z= E
//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000** € / E.E.Z Bidean
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000** € / E.E.Z=E
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000** € / E.E.Z= F
//BERRIZ
ANDIKONA AUZOA Berreraikitze baserria, **460.000**€
BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000** € / E.E.Z= F
ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000** € / E.E.Z= G
//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. **199.000** € / E.E.Z= E Garaje itxia aukeran.
//IURRETA
ZUBIAURRE KALEA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **100.000**/E.E.Z=E
//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria lurzorua, **350.000**€
//BERRIAK DURANGO
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. 134m2. **295.000** € / E.E.Z =bidean
ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. **250.000** € / E.E.Z =F
OLAZARAN KALEA – Estreinatze etxebizitza -3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje eta trastelekua. **345.000** € / E.E.Z =A. Bigarren garajea aukeran
LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitze 600m2ko lur-sorua **640.000**€
ELORRIO
SAN FAUSTO KALEA 400m2 inguru bi solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea, jantokia, bainugela 2 eta portxea. 2.800m2 inguruko lur sailarekin. **630.000**/E.E.Z=E

Botikak

BARIKUA, 14 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 15 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurreondo
22. - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

NAVARRO Artekaleara 6 - **DURANGO**

JAIO-OLABARRIETA
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 16 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 17 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo
22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 18 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 19
09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 20 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Labrit (731. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Aingeru**, zure laugarren urtebetetzean! Musu potolo bat familia guztiaren partez.



Zorionak, **Ibon**! Abuztuan urteak egin zenituen. Musu handi bat eta besarkada bat, Inhar, Eider eta Rakelen partez.



Zorionak, **Ixone**, etxekoon partez. Beste asko bete dagizuzala eta alabatxoa ondo etorri dadila.



Uztailaren 27an **Asierrek** 9 urte bete zituen. Irailaren 12an **Ikerrek** 11 urte egin ditu. Zorionak eta musu handi bat etxeko guztien partez.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 25° / 14° ☀️

ASTELEHENA 🌡️ 30° / 19° ☀️

EGUAZTENA 🌡️ 26° / 16° ☁️

DOMEKA 🌡️ 29° / 16° ☀️

MARTITZENA 🌡️ 28° / 18° ☁️

EGUENA 🌡️ 23° / 16° ☁️

A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

"Desagertzeko zorian gauden espeziea gara organo egileak"

'Cantantibus Organi' proiektuaren barruan organo bi egin ditu J. Sergio del Campok. Aurkezpen ekitaldia egingo dute bihar, 19:00etan, Otxandioko Santa Marina elizan

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Organozale amorratua izanik, askotan murgildu da instrumentu horren ikerketan organogile otxandiarra. Autodidakta da organoa jotzen, orduak emandakoa Durangoko Andra Mariako organoa jotzen eta konpontzen. Abadiñoko San Trokaz elizakoa ere konpondu du, eta urte bi egin zituen Zornotzako Andra Mariakoa berritzen.

Ingenieritza lan zorrotza da organo bat berriztea edo egitea?

Organo berria egitea edo zahartuta-

ko erara bueltatzea, bai. Artisanu lana da, hainbat materialez lan egiten delako. Zornotzako Andra Mari elizako organoa berregiteko, adibidez, ikerketa lan handia egin genuen jatorrizko moduan uzteko. Erronka handia izan zen. Guztiz hondatuta zegoen.

Zein izan zen zure lehenengo hartu- emana organoagaz?

Umetan, Santo Domingo de la Calzadako (Errioxa) katedralean. Ateak zabal-zabalik zeuden egun batean, organoa entzun eta liluratuta geratu nintzen. Ostean, meza ematen

zuten bakoitzean joaten nintzen organoa entzuterat. Oso txikitatik erakarri nau; 10 bat urteagaz J. S. Bach-ek tokata eta fugekin grabatutako diskoa oparitu zidaten.

Gerora organogile bihurtu zara.

1997an hasi nintzen, nahiko berandu. Horrek ematen dit min. Palentzian eta Errioxan lan egin dut organogile, eta Ingalaterran. Orain lau urte *Cantantibus Organi* proiektua abiatu nuen Iñaki Cantonegaz.

Proiektu horren barruan egindako or-

ganoak aurkeztuko dituzue zapatuan? Bai. Premien arabera, egokitu daitezkeen organo

positibo bi egin ditugu, moduluzko diseinu batez. Egiten duguna erakusteko aukera dugu eta emozio berezia sortzen du; ezezaguna da gure lana, eta organoaren frikitzat ere hartu naute inoiz. Otxandion beste organogile bat ere egon zen, elizako organoa egin zuena.

Askotariko organoak daude?

Bai. Guk funtsezko funtzioak bete ditzaketan organo bi egin ditugu. 180 hodi dituzte. Baina Euskaldunakoak, adibidez, 5.000-6.000 ditu.

Elizako liturgiagaz lotzen dugu organoa, baina ze beste erabilera izan ditu?

Errenazimenduan bere papera izan zuen, gorteetako kaperetan eta jai giroan erabili izan da... Kontzertuak emateko ere sortu dira: Euskaldunakoa, tarteko. Zinemagaz booma izan zen AEBetan: asko erabili zen film mutuak girotzeko. Ingalaterran aretoetan erabili dute asko, orkestra bat garestia zelako. Eta boxeo borrokaldietako atsedenetan ere entzun izan da, besteak beste.

Baduzu bat bereziki gogoan?

Martin Goetze eta Dominic Gwynnegaz Ingalaterran egin nituen lanek asko markatu naute. Santiago de Compostelako Santa Clara komentuko organoak ere bai. Gehien emozionatu nauena, berriz, Londresko St Botolph-koa izan da; Zeelanda Berrian dagoen organo txiki batentzat egindako lehenengo hodiak ere oso gogoan ditut.

Organogile gutxi zarete...

Desagertzeko zorian dagoen espeziea gara, eta Euskal Herria gorenean egon da arlo honetan estatuan. Azpeitian Amezua familia aritu izan da XIX. mende erdialdetik; 70eko hamarkadara arte jarraitu zieten haien arrastoei. Ordutik ez da hemengo organogile baten organorik sortu.

Zer sentitzen da egindako organo bat lehenengoz entzutean?

Hunkigarria da organo berria edo luzaroan isilik egon den organo berriztua lehenengoz entzutea. Irrikan egoten gara nola entzuten den jakiteko.

J. Sergio del Campo
Olaso
Organogilea
Otxandio | 1967

**Lau-
hortza**

Sergio
Murillo Corzo
Ekonomialaria



Ehun urte

Lehenengo aldiz historian, gaur jaiotako umeak ehun urte biziko dira. Zientziaren aurrerabideak eta pasa dan mendean eraikitako punta-puntako osasun eta gizarte-babes sistemek, bizitzaren luzapena ekarri dabe. Urte gehigarri horreen saria balio-tsua da. Baliotsuegia bizitzaren amaieraren luzapen soil lez hartzeko.

Ehun urte bizitzeko aukera izateak bizitza osoa berpentsatzera eroan behar gindukez. Gaztarora arte formatu, heldutasunean ekoiztu eta zahartzaroan atsedena hartzea tokatzen dala errotu izan da gure gizartean. Hiru adin tarte horreek ondo bereiztu izan dira. Baina hori ahalbide du dabene inguruko faktoreak aldatu dira jadanik; 70 urte eskaseko bizi-esperantza, bizitza osorako lantoki bera, edota hiru belaunaldi batzen dituen etxeak ez dira gaur gaurkoz gure gizartearen ezaugarri.

XXI. mendeak ehun urteko bizitza orokortuko dau. Begiratu eizue inguruan: garai baten ezohiko ziranak hasi dira gurean zabaltzen. Hain gazte ez garela, gure trebeziak eguneratzeko eskolara bueltatzea ez da hain gauza arrotza. Tarteka, aita-ama izan edo etxeak zaintzeko, geldialdi bat egiten dogu. Ehun urteko bizitza baten ohiko ezaugarriak dira egoe-ra honeek.

Gizarte erronka handi asko daukagu, plazaratuak batzuk; pentsioak, migrazioa, kontziliazioa, besteak beste. Eztabaida publikoa ehun urte biziko diran pertsonen zerbitzura egin behar dogu, joko zelai barri baten, bardindutako partidu baten luzapen amaigabea egon barik.



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

Matrikula zabalik

On-line

1. fasea: irailaren 1etik 19ra
2. fasea: irailaren 19tik urriaren 4ra
Urriaren 24an: presentziala

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

